



Bernart Etxepare

euskaldunon hizkuntzaren hasikinak

linguae vasconum primitiae

euskara xumean

Patxi Salaberri Muñoa



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

BERNARD ETXEPARE
linguae vasconum primitiae

edo

euskaldunon hizkuntzaren hasikinak

Patxi Salaberri Muñoak
euskara xumera ekarria

Atarikoak

Bi hitz baino ez Etxepareren *Linguae Vasconum Primitiae* – Euskaldunon Hizkuntzaren Hasikinak izeneko liburuarekin atondu dugun bertsio honetaz.

Jadanik hogeit hamar inguru dira, guk dakigula, Etxepareren liburuak munduko hizkuntza nagusietan ezagutu dituen itzulpen-moldaketak. Bat bera ere ez, ordea, gaurko euskarara egokitua; bat bera ere ez, esan nahi baita, egungo irakurleak euskaraz eta edizio kritikorik edota hizkuntza hegemonikoen bitartekaritzarik gabe ulertzeko moduan prestatua.

Eta premiazkoa genuen. Izan ere, laguntzarik edo egokitzapenik gabe inor gutxi segid dezake normaltasunez Etxeparek darabilen hizkeran ondutako poema-multzo zoragarriaren haria. Errepikaren errepikaz, azkenean “Euskara, jalgi hadi plazara!” bezalakoak bai, ulertzen bide ditugu irakurleok, baina ez askoz gehiago. Milurteko erdia – erraz esaten da!– betetzear duen idazlanaren aurrean, egungo irakurleak gaztelaniazko zein frantsesezko bertsioetara jo behar izaten du, tamalez, Etxeparek dioenez jabetu nahi badu.

Eta ondo baino hobeto ezagutzeko eta gozatzeko liburua da Eihalarreko erretoreak utzi diguna; edo ez arras alboratua izateko, bederen, haren jolas poetiko-ideologikoa ikaragarria –hitzaren esanahi zabalenetan– baita oraindik orain.

Honako ahalegin honek, beraz, eguneko euskara estandarrera hurbildua eskaini nahi izan du Euskal Literaturak ezagutu izan duen lehen liburu inprimatua. Hegoaldean hedatuen bide dugun hizkera bateratura hurbildua, hain zuzen.

Eztabaida antzutan sartzeko asmorik gabe prestatu da idazlana, irakurle. Behin-behineko bertsioa, hortaz, baina betiere erraz ulertua izateko itxaropenarekin egokitua.

Hemengo formatu honi gagozkiola, suntsitzetik libratu zen ale bakarraren faksimilea aurkezten da edizioaren buruan, jatorrizkoa aurrean izatea betidanik baita interesgarri, erakargarri eta, areago, proposatzen diren irakurketak kontrastatzeko ezinbesteko erreferentzia.

Ondoren, saio honen berrikuntza-edo dena dator, hots, liburuaren bertsio bikoitza, bi-biak oraingo tipografian emanak eta aurrez aurre jarriak.

Batetik, orrialde bikoitietan jatorrizkoaren bertsio erraztua eskaintzen da, Etxeparek erabilitako hitz eta ezaugarri gehienak egungo ortografiarantz –ez beti, baina: eure, heuskara, erio...– ekarrita. Edonola ere, letrakera etzana hautatu dugu bertsio horretarako. Begiz begi, sarasketarrak zioen bezala, egungo euskara bateratuan proposatzen dizugun irakurketa doakizu. Hori bai, jatorrizko bertsioaren translaziotik lehen begiratuan bereizteko, orrialde bakoiti horietan beste letrakera mota bat erabili dugu, ohiko moldekoa.

Erantsi beharrik ez da: lantxoaren xede nagusia Etxepareren bertsoak ahalik zuzenen ulertaraztea izanik, lau bilakatu ditugu haren bertsoak. Hau da, testuak taxutzean ez diegu jaramonik egin bertso-lerroen neurri-hoskidetasunei, agerikoa baita haien ezitia dastatu nahi duenak ezker aldeko orrialdetara jotzea baino ez daukala.

Hainbatetan berariaz urrundu gara gure proposamen honetan Etxeparek erabilitako lexikotik ere, arras aberasgarri iruditu baitzaigu orrialde bikoitietan agertzen ziren jatorrizko hitz, aditz edo esamolde zenbait (jaugin, engustazu, mezu nenzan...) esparru semantiko bereko ordain desberdinez edota ezagunagoen bidez eskaintzea orrialde bakoitietan. Baita jatorrizkoan leku bezain hitz ezagunak agertu direnetan ere, ez baitugu uste parean toki jartzeak inoren ulermenari kalterik egin diezaiokeenik, alderantziz baizik. Denak kode bateratukoak badira ere, elkarren osagarri izan litezkeela pentsatu dugu.

Guketx, aski izango genuke hautu honek Etxepare koplariaren gatz-piperrak behar baino gehiago gezatuko ez balitu!

Patxi Salaberri Muñoa

Aramaion, 2018ko maiatzaren 17an

Oharra: Atal bera beste testuan ikusteko esteka aurkituko duzu atal bakoitzaren azpian

LINGVAE VASCONUM PRIMITIAE

EUSKALDUNON HIZKUNTZAREN HASIKINAK

per Dominum Bernardum Dechepare

Rectorem sancti michælis veteris.

Erregeren adbokatu bidezko eta nobleari, birtute eta hon guzietz konplituari bere iaun eta iabe Bernard Leheteri bernard exeparekoak, haren zerbitzari xipiak, gogo honez goraintzi bake eta osagarri.

Zeren baskoak baitira abil, animos eta jentil, eta hetan izan baita eta baita zientzia guzietan letratu handirik, miraz nago, jauna, nola batere ezten asaiatu bere lengoaje propriaren faboretan heuskaraz zerbait obra egitera eta eskributan imeitera, zeren ladin publika mundu guzietara bertze lengoajiak bezala hain eskribatzeko hon dela. Eta kausa honegatik gelditzen da abataturik, ezein reputazione bage; eta bertze nazione orok uste dute ezin deusere eskriba daiteiela lengoaje hartan nola bertze orok baitute eskribatzen berian.

Eta zeren orai zuk, jauna, noble eta naturazkoak bezala baituzu estimatzen, goratzen eta ohoratzen heuskara, zuri, neure jaun eta jabia bezala, igorten darauritzut heuskarazko kopla batzu ene ignorantziaren araura eginak. Zeren, jauna, haiek ikhusirik eta korregiturik plazer duzun bezala, irudi bazautzu inprimi erazi ditzazun eta zure eskutik orok dugun joia ederra, inprimiturik heuskara, orano izan eztena; eta zure hatse honetik dadin aitzinerat augmenta, kontinua eta publika mundu guzietara; eta baskoek bertzek bezala duten bere lengoajian, eskribuz, zerbait doktrina eta plazer hartzeko, solas egiteko, kantatzeko eta denbora igaraiteko materia; eta jinen direnek gero duten kausa oboro haren abantatzeko, eta obligatu giren guziak Jeinkoari othoiz egitera, dizun mundu honetan prosperoki bizia eta bertzian parabizua. Amen.

DOKTRINA KRISTIANA

DOKTRINA KRISTAUA

Munduian den gizon orok behar luke pentsatu
Jangoikoak nola duien batbedera formatu,
bere irudi propioa gure arima kreatu,
memoriaz, borondatez, endelguiaz goarnitu.

Ezein jaunek eztu nahi muthil gaixtoa eduki
ez pagatu soldatarik zerbitzatu gaberik;
Jangoikoa ari duzu hala hala gureki:
gloriarik ez emanen hongia egin gaberik.

Muthilek gure zerbitzutan deramate urthia,
soldata aphur bategatik harzen pena handia.
Jangoikoak behar luke guk bezanbat balia;
zerbitzatu behar dugu emaitetekoz gloria.

Ogirik eztakusat bilzen hazi erein gaberik;
nork zer hazi erein baitu, biltzen dizi komunki.
Obra honak ukhenen du goalardona frangoki,
baitare bekhatuiak punizione segurki.

Zeren Jeinkoa egun oroz ongi ari baitzaigu,
guk ere hala behar dugu harzaz untsa orhitu,
gure hatse eta fina hura dela pentsatu,
goiz et'arrats orhituki haren izena laudatu.

Arratsian

Arratsian etzitian gomend'adi Jeinkoari
eta othoi begir'ezan peril guzietarik;
gero iratzar adinian orhit adi bertarik
zenbait ere orazione erraitera debotki

Goizian

Albadagik joan adi elizara goizian,
Jeinkoari han gomenda bere etxe sainduian;
han sartzian pentsa ezak aitzinian nor duian,
norekila mintzo izan han agoen artian

Ilherrian

Hilez untsa orhit adi ilherrian sartzian,
hi nolako ziradela bizi ziren artian;
hek bezala hil behar duk eta ez jakin ordua;
othoi egik Jeinkoari deien barkamendua

Batheiarria

Elizara izanian so egik bateiarrira;
pentsa ezak han duiala rezebitu fedia,
Jeinkoaren grazia eta salbatzeko bidia;
hari egin albaiteza lehen ezagutzia

Gorputz sainduia

Bertan gero so albaitegi non den gorputz sainduia;
pentsa ezak hura dela hire salbatzalia;
ador'ezak debozinez eta galde grazia
azken finian eman diazan rezebitze dignia

Kurutzea

Kruzifika ikhus eta orhit adi orduian
nola izan redemitu haren odol sailduiaz;
hark erio haritu dik hiri leian bizia;
pentsa ezak nola eman hari bere ordia

Andre Dona Maria

Andere hona den lekhura ailtxa itzak begiak;
mundu oro eztakidik hura bezain balia;
Jeinkoaren hurranena hura diagok glorian:
graziak oro bere eskuian nahi duien orduian

O, andere gloriosa eta ama ezia!

zutan dago bekhatoren esperantza guzia.
Ni zugana niatorkezu, bekhatore handia,
arimaren salbatzera zu zakiztan balia.

Sainduier

Sainduier ere egin ezak heure ezagutzia,
singularki nortan baituk heure deboziona;
zein sailduren besta daten orhit egun berian
eta noren izenetan fundatu den eliza;
orhituki othoi egin, dakizkian balia.

Orazione igandeko

Miserikordiaz bethe ziraden jaun eztia,
othoi, entzun iazadazu neure orazonia:
Bizi nizan artian eta erioko phunduan
zuk idazu, othoi, oso neure endelgamendua,
alteratu gabetarik zure fede sainduian
gauzen untsa egiteko neure azken finian.

Eta orduian zuk idazu indar eta grazia
bekhatuiez ukheiteko bide dudan dolua,
perfektuki egiteko neure konfesionia,
neure bekhatuiez oroz dudan barkhamendua,
bai digneki errezebi zure gorputz saindua,
baietare behar diren bertze sagramenduiak.

Etsai gaitza jinen baita tentatzera orduian
nontik engana niroien bere arte guziaz,
othoi, jauna, engutztazu lagun zure sainduiak
en'etsaiak bentzi enazan neure azken finian.

Ene arima orduian har, othoi, zure glorian,
nola baita redemitu zure odol sainduiaz,
eta nik han dakusadan zure begitartia
eta sainduieki lauda zure majestatia.

Goiz et'arrats egiten duk buluz eta beztitzia,
gorputzaren zerbitzutan barazkari afaria;
arimaren salbatzeko Jeinkoaren ohorian
etzaiala, othoi, neke gauza hoien egitia,
egun oroz ezin bada aste oroz igandian

Gure artian haur dakusat itsutarzun handia,
nola dugun zerbitzaten hanbat gure etsaia;
Jangoikua deskonozi gure salbatzalia
eta orok ezagutzen dela bidegabia.

Anhitz jendez miraz nago, neure buruiaz lehenik,
nola gauden mundu huneki hain borthizki josirik
hanbat jende dakuskula hunek enganaturik;
oranokoak igorri'tu oro buluzkorrik
eta eztute gerokoek hantik eskapatzerik.

Person'oro hil denian hirur zathi egiten:
gorputzori usteltzera lur hotzian egoizten,
unharzuna ahaidiek bertan dute partitzen,
arima gaixoa dabilela norat ahal dagien;
hain biaje bortitzian konpainia faltatzen.

Orhituki igandian behar dugu pentsatu
zenbatetan egin dugun aste hartan bekhatu;
orhit eta Jeinkoari barkhamendu eskatu,
atorra nola arim'ere aste oroz garbitu.

Bi pundutan diagozu gure gauza guzia:
hongi egin badazagu segur parabizua,
bekhatutan hil dadina bertan kondenatua.
Bertze biderik ezin date; hobenari begira.

Ehon ere eztakusat hain laxo den artzainik,
otsoa khentzen eztuienik bere ardiatarik;
gure arimaz kargu dugu Jangoikuak emanik,
nola gobernatzen dugun batbederak so begi;
kondu hersi behar dugu harzaz eman segurki
nori baitu bere odolaz karioki erosi;
hala zinets eztazana dauke enganaturik.

Kontenplatu behar dugu pasione sailduia
eta sendi bihotzian haren pena handia;
nola zagoen kurutzian oro zauriz bethia,
huin eskuia izaturik eta buluzkorria,

Ohoineki urkaturik, nola gaizkigilia,
eta arhantzez koroaturik mundu ororen jabia;
haren gorputz prezioso eta delikatuia
gaizki eskarniaturik eta zathikatuia.

Elas, orduian nola zagoen haren ama tristia,
haren ama maitia eta mundu ororen habia,
pena hetan ekustez bere seme maitia
eta hiltzen begietan mundu ororen bizia

Bihotzian diraustazu gertuz, ama ezta,
zure orduko doloriak eta bihotz zauriak:
begiez nola zenakusan zure jabe handia
orotarik lariola odol preziatuia;
hek nigatik ziradela ari nuzu khonduia.

Orhit adi nola duian egin anhitz bekhatu,
heien kausaz merexitu anhitzetan hondatu,
bere miseriak nola huien guardatu
eta dolu ukhen baduk bertan oro barkhatu;
eta agian hik eginen bertan berriz bekhatu.

Orhit adi Jengoikoaren majestate handiaz,
zeruia, lurra, itxasoa dadutzala eskuian,
salbatzia, damnatzia, erioa eta bizia,
estenditzen orotara haren potestatia;
ezi eskapa hari ehor, dauginian manuia.

Mundu honetan badirogu batak bertzia engana,
bana bertzian egiatik batbedera joanen da;
nor nolako izan giren orduan ageriko da,
egin, erran, pentsatuia, ageriko guziak.

Orhit adi Jeinkoaren justizia handiaz,
nola orok behar dugun eman khondu hersia,
egin oroz rezebitu gure merexituia,
erioa dauginian, baita haren mezuia.

Ordu hartan afer date hari apelatzia,
hark ehor eztemaio oren baten ephia,
ezetare estimatzen xipia ez handia;
batbederak egarriko orduian bere haxia.

Orduian zer eginen dut, gaixo bekhataria?
Arartekoak faltaturen, kontra juje handia;
abokatzen eztakike ehork haren gortian,
ogen oro publikoki agerturen orduian.

Elas, othoi, orok egin orai penitentzia,
behar orduian eztukegu gero agian aizina;
anhitz jende enganatu doa luzamenduiaz,
seguraturik ehork eztu egun baten bizia.

Gu girade egun oroz herioaren azpian;
behar dugu prest eduki gure gauza guzia,
gure gauzez ordenatu, oso giren artian,
gero eztugun egiteko hezaz azken finian;
arimaz aski egiteko badukegu orduian.

Pentsa, othoi, nola gauden bi bideren erdian,
salba bano damnatzeko perileko punduian;
ehor fida eztadila, othoi banitatan;
sainduiak etziraden sarthu banitatez glorian.

Elas, othoi, hunat beha bekhatore guzia;
bekhatuiaz damnatzen du Jangoikuak munduia;
zeren hanbat bekhatutan deramagu bizia
eta guhaurk gure faltaz galtzen gure buruia?

Artzain orok biltzen ditu ardiak arratsaldian,
lekhu honerat eramaiten eguraldi gaitzian;
batbederak pentsa beza arimaren gainian
nola salbaturen duen hura bere finian.

Bekhatorek ifernuian dute pena handia,
pena handi, izigarri, ezein pausu gabia;
sekulakoz egon behar hango sugar bizian;
zuhur denak, hara eztohen, egin penitentzia.

Harmak erioaren kontra

Erioa jaugiten da guti uste denian
eta agian ez emanen konfesione ephia;
hirur gauza albaditu ehork ere egiaz,
nola ere hil baitadi, doha salbamenduian.

Lehen egia

O jaun hona, aitortzen dut bekhatore nizala
eta gaizki egitiaz ogen handi dudala;
nik baitzitut ofensatu bide eztudan bezala,
dolu dizit eta damu zure kontra eginaz.

Bigarren egia

O jaun hona, gogo dizit oren present honetan
goardatzeko bekhatu bizi nizan artian;
othoi, jauna, zuk idazu indar eta grazia
gogo honetan irauteko neure bizi guzian.

Heren egia

O jaun hona, gogo dizit garizuma denian
egiazki egiteko neure konfesionia,
baitare konplitzeko didan penitentzia;
othoi jauna zuk konfirma ene borondatia.

Eta hoiak egiazki ehork hala ezpaditu,
albailiaki duda gabe ezin dateiela salbu
bere bekhatuiak oro baditu ere konfesatu;
eta hala zinhets beza nahi eztenak enganatu.

Apezek ez apezpikuk ezetare aita sainduk
absolbatzen halakoaren ezein bothererik eztu;
Jangoikua bethiere bihotzera so diagozu,
guhaurk bano segurago gure gogua diakutsu;
gogua gabe hura baitan hitzak oro afer tuzu.

Regla ezak egun oroz onsa heure etxia;
eure gauza guzietan emak dilijentzia;
eta eure trabailuia duian penitentzia,
Jangoikua lauda ezak gauza ororen buruian.

Honekila albaiteza bethi ere konbersa,
gaixtoeki ezin aite gaizki bezi probetxa;
bertzer egin eztazala nahi ez ukeiena
ezetare falta ere haurk nahi duiana;
lege honi segi bedi salbu nahi duiena.

Hamar manamenduiak

Ador'ezak Jangoiko bat onhets oroz gainetik;
haren izena ez jura kausa gabe banoki;
igandiak eta bestak sanktifica debotki;
aita eta ama ohora itzak, bizi izan luzeki;
ehor erho eztazala ezetare gaitzetsi;
nork beria baiezila emazterik ez hunki;
bertzerena eztazala ebatsi ez eduki;
fama gaitzik eztemala lagunari faltsuki;
bertzen emazte alabak ez desira gaixtoki,
ezetare unhasuna, lekot bedi justoki.

Manamenduiak hoiak dira, Jangoikuak emanik;
hok begira dizagula, salba giten hegatik.

Judizio jenerala

Judizio jeneralaz nola orhit eztira,
bekhatutan bizi dira bethi bere aisira;
egun hartan gal ezkiten, aitzinetik begira,
han orduian eztukegu ehork ere aizina;
harzaz untsa orhitzia zuhurtzia handi da.

Arma! arma! mundu oro judizio handira!
Zeru eta lur ororen kreadore handia
munduiaren jujatzera rigoroski heldu da;
nola gauden aphaindurik bat bederak begira.

Manamendu igorten du mundu guzietarik
jende oro bat dakion Josafaten bildurik;
ehon ere ehor ere eskapatu gaberik
zeru eta lur guzia daude ikharaturik.

Erioa manatzen du, ezein falta gaberik
hilak oro dakatzela aitzinera bizirik,
hantik harat eztukela botherarik jagoitik;
mundu oro jarriren da bi lekutan hersirik:
glorian ezpa ifernuian; ezta eskapatzerik.

Manatzen du ifernuia handi eta bortizki
han direnak igor'itzan luzamendu gaberik,
arima eta gorputzetan nahi tuiela ikusi
eta emanen daraiela zer baitute merezi.

Jende honak, onsa pentsa juje hunen gainian
nola duien guzietan potestate handia,
erioan, ifernuian, zeru eta lurrian.
Zeren dabil haren kontra, bada bekhatorea?

Gure artian haur dakusat itsutarzun handia,
nola dugun zerbitzaten hanbat gure etsaia;
Jangoikoa deskonozi gure salbatzalia
eta orok ezagutzen dela bidegabia.

Harren bier emanen du sententzia pizua
elgarreki pena diten ifernuko garrian,
sekulako suian eta ezein pausu gabian.
Orok, othoi, onsa pentsa zer den irabazia.

Egundano ezta izan, ez izanen jagoitik,
judizio hain handirik ezetare borthitzik;
sortu eta sortzekoak, hilez gero pizturik,
orok hara behar dute eskusatu gaberik.

Anhitz gauza behar dira judizio handian:
jujeak duien potestate parte ororen gainian,
demandantak erran dezan bere kausa egiaz,
baitetare defendentak bere defensionia;
porogatu datenian nork dukeien zuzena,
sententziaz eman dezan jujiak nori beria.

Egun hartan juje date mundu ororen jabia,
baitu ororen gainian potestate handia;
akusari bera date eta kontzientzia;
bekhatu oro publikoki ageriko orduian.

Bekhatoren kontra date orduian mundu guzia,
zeren duten ofenditu haien kreatzalia;
ordu hartan ixil dauke triste bekhatoria;
orotarik zerraturik daude pausu guziak.

Juje jauna iraturik egonen da gainerik,
irestera aphaindurik ifernua azpitik,
etsai gaitza akusatzen ezkerreko aldetik,
bekhatuiak eskuinetik mintzaturen publiki:
hire kontra heben gituk, ihaurorek eginik.
Gaizkienik kontra date kontzientzia barnetik.

Estaltzeko ez izanen ehon ere lekhurik;
agertzera nork eginen ordu hartan bathirik?
Mundu oro egonen da haien kontra jarririk,
sainduak ere ordu hartan oro egonen ixilik,
jujeak ere ez entzunen ezein ere othoiik;
egun harzaz orhit giten, othoi, hara gaberik.

Non dirate egun hartan hebengo jaun erregiak,
duke, konde, markes, zaldun eta bertze jaun nobliak
eta haien armadako gizon sendoen balentziak?
Ordu hartan baliako guti haien potentziak.

Jurista eta theologo, poeta eta doktoriak,
prokurador, adbokatu, juje eta notariak?
Ordu hartan ageriko klarki haien maliziak
eta guti baliako kautela eta parleriak.

Aita saindu, kardenale, aphez eta prelatuik?
Berez eta ardi oroz eman behar han konduia;
egun hartan handiena izanen da erratuia
eta bardin jujaturen handia eta xipia.

Afer date egun hartan hari apelatzia,
ehon ere eztazagu jaunik bere gainian;
malizia gaitzi zaika eta maite egia.
Elas, othoi, orok egin orai penitentzia,
egun hartan gero eztugun egiteko handia.

Seinaliak jinen dira aizinetik tristerik;
elementak ebiliren oro tribulaturik,
iguzkia, ilhargia odoletan etzinik,
itxasoa samurturik goiti eta beheiti,
hango arrainak iziturik ebiliren jalgirik.

Eta lurra izigarri oro ikharaturik,
zuhamuiek dakartela odolezko izerdi;
tenpestatez, igortziriz, aire oro samurrik;
mendi eta harri oro elgar zatikaturik;
mundu oro jarriren da suiak arrasaturik.

Juje jaunak manaturen bera jaugin gaberik,
gauza oro xahu dezan behin suiak lehenik,
satsu eta kirats oro dohen mundu guzitik;
eta hala jarriren da lur guzia errerik.

Tronpeta da mintzaturen mundu guzietarik:
Hilak oro jaiki huna zuien hobietarik.
Arima eta gorputzetan oro bertan pizturik,
orok hara behar dugu eskusatu gaberik.

Justu oro iganen da bertan goiti airian
eta egonen eskoinetik jujearen aldean;
bekhatoreak dolorezki sugarrian lurrian,
harik eta dantzuteno sententzia gainian.

Dagoenian jende oro aitzinian bildurik,
jauginen da rigoroski sailduieki zerutik;
Josafaten egonen da airian gora jarririk,
bekhatorer eginen du arrangura handirik;
haren hitzak ezarriren oro erdiraturik.

Hartu nahi zuenian pasione saildua,
haren kontra jin zenian armaturik jendia,
hitz huts batez iziturik egotzi'tu lurrian.
Juiatzera dauginian majestate handian,
nola eztu lotsaturen ordu hartan munduia?

Erranen du bekhatorer dolorezki orduian:
Nizaz ezineten orhit bizi zinetenian.
Hanbat ongi nik eginik zuier zuen mendian,
esker hon bat ukhen ez tut zuieganik bizian.

Zer ere hon baituzuie oro dira eniak:
gorputz eta hon guziak baietare arimak;
zuiendako egin ditut lurra eta zeruiak,
iguzkia, ilhargia eta fruktu guziak.

Suiak bero, hurak xahu hats hartzeko airia,
ainguruiak zuien goarda ararteko sailduiak,
zuietatik ezarri dut gero neure bizia;
hoiegatik orogatik zer da zuien pagia?

Ikhusirik anhitzetan beharrian pobria,
eri, gose, egarria eta buluzkorria,
ene izenian anhitzetan galdeginik limosna,
zuiiek ukhen baituzuie hezaz guti ansia.

Bai erhoki konplazitu ene kontra etsaia,
demonio, haragia baietare munduia.
Orai dela zuiendako maradizionia,
ifernuko suia eta jagoitiko nekia
eta zuien konpainia demonio guzia.

Ezta anhitz luzaturen etsekuzionia,
bertan date irekiren lurra oren berian,
su hareki iretsiren oro bere barnian;
haur izanen bekhatoren undar irabazia.

Elas, nola izanen den heben damu handia,
damu handi, izigarri, remedio gabia,
hanbat jende sekulakoz damnaturen denian.
O, jaun huna, zuk gitzazu othoi hantik begira!

Beretara itzuliren ditu gero begiak:
Goazen oro elgarreki ene adiskidiak,
bethi eta sekulakoz gauden ene glorian,
desir oro konpliturik alegria handian.

Hantik harat ezta izanen bi erretatu baiezi:
damnatuiak ifernuan bethi dolorereki;
salbatuiak Jeinkoareki bethi alegeraki.
Jangoikuak dagiela gure partia hoieki.

Zeruia ezta ebiliren hantik harat jagoitik,
iguzkia egonen da orienten geldirik,
ilhargia okzidenten begiz begi jarririk;
egun honek iraunen du eben eta jagoitik;
alabana ez izanen heben gauza bizirik.

O, jaun hona, zu zirade gure kreatzalia;
bekhatore bagir'ere oro gira zuriak;
gure faltaz gal eztadin, othoi, zure egina,
bekhaturik garbitzazu, othoi, gure arimak.

Baldin erideiten bada gutan falta handia,
are duzu handiago zutan pietatia.
Zuretarik giren, othoi, egiguzu grazia;
zure ama anderia dakigula balia.

Orazionia

Abe Maria, anderia grazia oroz bethia,
Jeinkoaren ama birjen berak ordenatuia,
zeru eta lur ororen erregina dignia,
bekhatoren adbokata eta konfortaria.

Ni zugana niatorkezu, bekhatore handia,
karioki othoitzera zu zakiztan balia,
digne ezpaniz aipatzera zure izen sailduia
ez jitera aitzinera zeren bainiz satsuia.

Miserikordiaz bethe ziren andere handia,
enazazula othoi iraitz eta ez menosprezia;
zuk gibela badidazu, elas, ama eztia,
ordu hartan diakusazut galdu neure buruia.

Hanbat nuzu gauza orotan ni berthute gabia,
oren oroz bekhatutan nabilena galdua
eta bethi erratiua nola ardi itsuia,
mundu hunek, haragiak, bethi enganatuia.

Zu baitzira grazia ororen ama eta iturburuia,
berthute eta hon guzien thesorera handia,
egundano bekhatutan makulatu gabia,
berthutetan segitzeko egidazu grazia.

Zutan dago bekhatoren remedio guzia,
esperantza, osagarri eta salbamenduia;
zuk gibela demazuna nola baita galdua,
zure gomenduan dena halaber da salbuia.

Jeinkoak zuri eman dizi potestate handia,
haren ama ziren gero, ama ere maitia,
zeru eta lur orotan duzun hanbat balia,
zer zuk galde baitagizu, den konplitu guzia,

eta zure eskutik duten bertze orok grazia
eta salba zuk dezazun zuri gomendatuia.
O andere exzelente, ezein pare gabia,
salbatuietarik nizan egidazu grazia.

Zuri gomendatzen nuzu hila eta bizia,
neure gorputz eta arima eta dudan guzia;
othoi, behar orduetan zu zakitzat balia
eta, othoi, zuk goberna ene bizi guzia,

eta irabaz Jeinkoaganik indar eta grazia
bekhatuiez egiteko untsa penitentzia
eta gero berthutetan deramadan bizia
eta egin gauza orotan haren borondatia.

Begira, othoi, meskabutik ene gorputz pobria;
bekhatutan hil eznadin egidazu grazia,
sekulakoz damnaturik enoian galduia,
bana zure eskutik dudan salbatzeko bidia.

Eta gero dauginian ene eriotzia,
arimaren partitzeko oren izigarria,
ordu hartan behar baitut eman kondu hersia,
egin oroz rezebitu neure merexituia.

Eta ez jakin lehen gaoian non daten ostatuia,
ezetare, zu ezpazira, nor dakidan balia;
ordu hartan hel zakitzat, othoi, ama eztia,
ararteko leial eta neure aiutaria.

Othoi, zure gomenduan har arima tristia,
ordu hartan jo eztezan ifernuko bidia;
zure seme jaunareki egidazu bakia,
bekhatuiak barkaturik didan parabizua.

Eta nik han dakusadan zure begitartia
eta sainduieki lauda haren majestatia.
Zeren untsa orhit ziten nizaz, ama eztia.
gogo honez erranen dut zuri Abe Maria.
Orazione haur derrana, andredona Maria,
othoi, gomendatu duzun hila eta bizia.

AMORROSEN GAZTIGUIA

MAITALEENTZAKO AHOLKUA

Bertzek bertzerik gogoan eta nik andredona Maria.

Andre hona dakigula guzior, othoi, balia!

Amorosak nahi nuke honat beha balite;
hon lizaten gaztigurik agian entzun liroite,
amore bat hautatzeko kontseilu bat nekeie,
balinetan sekulakoz gogoan sar balekie.

Nihaurk ere ukhen dizit zeinbait ere amore,
bana hantik eztut ukhen probetxurik batere;
anhitz pena, arima gal, harena eta neuri'ere;
amoretan plazer baten mila dira dolore.

Amoretan othe date leial denik batere,
hitz ederrez ezpa joiaz mutha eztadin hura ere?
Hoben uste duienori anhitzetan traidore,
hobena date gaitzenik arimaren berere.

Bekhatuzko amoria bethi date traidore;
erioa dauginian egia zogeri date;
hartu duten plazer oro orduian iragan date;
bekhatuia gelditzen da penatzeko gero ere:
anhitz plazer ukhen badu, anhitz behar dolore.

Amore bat nahi nuke liadutanik egia,
bizi eta hilez gero hain lakidan balia;

zerbitzatu nahi nuke halakoa bizian;
heben labur bizia da, jagoitiko bertzia.

Mundu oro iraganik ez eriden bertzerik,
Jeinkoaren ama hona grazia oroz betherik;
haren amore izateko ezta ehor dignerik;
untsa zerbitza dazagun maite gitu bertarik.

Amoriak bano dira harzaz bertze guziak;
behar handien denian faltaturen bertziak;
uste bano lehen gira hiltzen bekhatoriak;
hark aiuta ezpagitza, nola giren galduiak!

Andre hona har dazagun orok gure amore,
bertze oro utzi eta egin hari ohore;
hala egin badazagu, ohoratu girate.
Bertzegatik hura gabe oro galdu girade.

Jeinkoaz landan mundu orok eztu hanbat balia,
zeruia, lurra, itxasoa, haren peko guzia.
Orotara hedatzen du, behar bada, eskuia.
Bera handi izan arren, preziatzen xipia;
halakoa utzi eta, non dukegu bertzia?

Bertze amoreak baten bezi eztirade perestu,
nork beria bertziari eztu nahi partitu;
ama birjen gloriosa hanbat bada konplitu,
ororentzat bera baita, leial dela, abastu.

Amorosek badagite behin bere nahia,

handiago jiten zaie bertze nahikaria;
ezi ukhen behin ere bere konplimendua.
Bethi peitu deramate bere mende guzia.
Emazte eta gizon orok, har amore Maria
eta orori baitekegu berak konplimendua.

Andre honak ukhen dizi ederretan grazia
ehork hura gaixteriaz ezin lezan inbia,
bana bistaz hiltzen zuen nahikari satsua.
Figuraren ekhustiaz dakikezu egia.

Itxasoan hur guzia, zeruietan izarra,
oihanetan itzalori, lur guzian belharra,
egunari iguzkia, gau beltzari ilhuna
lehen faltaturen dira ezi hura gugana,
balinetan egiazki gu bagaude hargana.

Zeren, bada, erho gira gaixo bekhatariak?
Andre leial honegana goazen, othoi, guziak!
Elas, othoi aribira bertze amore faltsuiak!
Harekila segur dugu behar dugun guzia.

Elas, amoros gaixoa, hire enganatuia,
erhogoatan badaramak eure mende guzia!
Ene andere graziosa ezpadakik balia,
bai bizian bai hilian bethi oha galduia.

Denbora duian artian egik ahal hongia;
erioa dauginian miraz dukek orduia;
Orduian ere, nahi baduk onsa jalgi dagia,

onsa hari gomend'adi; nik diotsat egia;
finian ere ezтик uzten hark galtzera beria;
orduian ere bere eskuian dik grazia guzia.

Mundu honek anhitz jende enganatu darama,
jagoitikoз bizi ustez haren sehi dabilta;
guti uste duenian ehor utzi darama;
Erho jokhatuia date hartan fida dadina.

Nihaur ere ebili niz anhitzetan erhorik,
gaoaz eta egunaz ere hotzik eta berorik;
loa galdu, pena aski, bana ez arimagatik.
Orai oro nahi nuke liren Jeinkoagatik.

Ni bezala anhitz duzu halakorik munduian
mende oro dohatenik bethi banaglorian.
Ohart giten buruiari denbora den artian,
andre honak har gitzake gomendutan agian;
hanbat bada graziosa ama ororen gainian,
jin dadinik ezту uzten hartu gabe grazian.

Kulpa gabe ehor ezta; haur da segur egia.
Bekhatuiaz damnatzen du Jangoikoak munduia;
bekhaturik ezta izan zutan, andre handia;
ararteko zakizkula, digun barkhamendua.

Bekhatoren salbatzeko Jeinkoak egin zinduzen,
bere buruia egin dizi juje justiziaren,
zu miserikordiaren refugio zinaden,
nola berak justizian ezin salba litzake,
zure miserikordiaz remedia litezen,
balinetan egiazki zugana jin balite.

Egundano ezta izan ez izanen jagoitik
bekhatore hain handirik ezetare satsurik,
bere bidian jaugin bada zuri gomendaturik,
ukhen eztuien barkhamendu zure amorekatik.
Ez galdu da ez galduren zure gomendukorik;
zuri gomendatzen gira hilik eta bizirik.

Bertze emaztiak ama dira zenbait haurto xipiren
eta gero obororik puntzela ezin dirate.
Zu, anderia, ama zira birjinarik Jeinkoaren
eta geroz erregina zeru eta lurraren.

Jeinkoa jaun den gauza ororen zu zirade andere;
arrazoin da mundu orok dagien zuri ohore,
ezi hala ari zauku Jesu Kristo bera ere;
zuk bezanbat dignitate mundu orok eztuke.

O, anderia, ezin date ehor zure bardinik,
gainekorik zuk eztuzu Jeinko beraz bertzerik,
Jeinko ezten bertze oro dago zure azpitik,
Jeinkoaren ama zira mundu oroz gainetik.

Mundu orok eztu egin zuk bezanbat hargatik,
orogatik bano oboro hark ere daidi zugatik.
Bere ama ezin utzi obeditu gaberik;
othoi, grazia egiguzu giren zuienetarik.

Untsa zuk har banentzazu gomendutan gogotik,
ezin damna naindeuela zinesten dut segurki.
Anhitz begiratu duzu galduren zenetarik,
niri ere hel zakitzat, othoi, galdu gaberik.

Ehon ere gaitzik ezta zuk khen eztirozunik,

ezetare hontasunik zure eskuian eztenik;
denbora eta lekhu orotan ezin duda gaberik
graziak oro zure eskuian Jangoikoak emanik.

Nahi duiena hala duke amak semiaganik,
seme honak anhitz daidi amaren amorekatik.
Gure natura haritu du zutan amaturik;
Jangoikoa ezarri duzu gure anaieturik.

Haren eta gure ororen ama zira dignerik;
amak eztu sofritzeko semen artian gerlarik;
samurturik badakutsu gure gaizkiegatik,
ororen ama zira eta bake gitzazu bertarik.

Orai egiten diraden gaizki handiegatik
Jeinkoak ondatu zukeien lur guzia engoitik,
balinetan zu ezpazina ararteko gugatik.
Oro sostengatzen gaitu zure othoiegatik,
gu gaixtoak izan arren ezten zutan faltarik.
Fin honera hel gitzazu, giren salbuietarik.

Ama ezta, nik badagit zure kontra faltarik,
zuk gaztiga eta dreza nazazu, othoi, bertarik.
Elas, norat ihes naidi, zu neure ama utzirik?
Neuretako eztzagut zu nolako amarik.

EMAZTEN FABORE

EMAKUMEEN ALDE

Emaztiak ez gaitz erran ene amorekatik.
Gizonek utzi balitzate, elaidite faltarik.

Anhitz gizon ari bada andrez gaizki erraiten,
arhizki eta desoneski baitituzte aipatzen,
ixilika egoitia ederrago lizate.
Andrek gizoneki bezi hutsik ezin daidite.

Zuhur gutik andregatik gaizki erran diroite;
haiez hongi erraitea onestago lizate .
Emazteak zerengatik gaitz erranen dirate?
Handi eta xipi oro haietarik girade.

Balentia sinplea da andren gaitz erraitea,
bat gaitz erran nahi badu, oro bardin sartzea.
Ixil ladin nahi nuke halako den guzia;
Damu gaitzik emazteak hari eman dithia.

Andren gaitz erraile orok behar luke pentsatu
bera eta bertze oro nontik ginaden sorthu;
ama emazte luien ala ez nahi nuke galdatu.
Amagatik andre oro behar luke goratu

Gizonaren probetxuko emaztia bethi da ;
oro behin haietarik sortzen gira mundura.
Sorthu eta hil ginate hark haz ezpaginitza;
haziz gero, egun oroz behar haren aiuta.

Haren eskuz osoan behar soinera eta jatera;
eri denian, andre gabe galdu gizon egurra.
Hil badadi, hura nola nor doake gainera?
Ordu oroz behar tugu; ezta heben zer duda.

Emazterik ezten lekuian eztakusat plazerik;
ez gizona ez etxia behin ere xahurik,
etxian den gauza oro gaizki erreglaturik;
parabizuan nahi enuke emazterik ezpaliz.

Emaztiak eztut entzun lehen gizona jaukirik,
bana gizonak emaztia bethi ere lehenik.
Gaixteria jalgiten da bethi gizonetarik;
zeren, bada, daraukate emaztiari hogenik?

Bertuteak behar luke gizonetan handiago;
emaztetan nik dakusat hongiz ere gehiago.
Mila gizon gaixtorik da emazte batendako;
gizon baten mila andre bere fedean dago.

Hek gizoner beha balite, elizate bat honik;
eztiroite deuskai denik utzi jauki gaberik;
bana anhitz emazte da eskapatzen zaienik,
anderetan zeren baita bertutea hobenik.

Nik eztantzut emaztiak bortxaturik gizona,
bana bera zoraturik andriari darraika.
Zenbait andre hel baledi oneriztez hargana,
zein gizonek andriari emaiten du ogena?

Jeinkoak emaztea maite mundu oroz gainetik.
Zerutika jaitsi zedin harzaz amatorurik;
emaztiak ezarri du gure anaieturik.
Andre oro laudatzeko haren amorekatik.

Irudi zait emaztia dela gauza ezia,
donario guzietan guziz gauza emia.
Gaoaz eta egunaz ere badu plazer handia.
Harzaz gaizki erraitia bilania handia.

Munduian ezta gauzarik hain eder ez plazentik
nola emaztia gizonaren petik buluzkorrik;
beso biak zabaldurik, dago errendaturik,
gizonorrek dagiela harzaz nahi duienik.

Jo badeza dardoaz ere gorputzaren erditik,
ainguruiak bano oboro ez larrake gaizkirik.
Bana dardoa ematurik, zauri'ere sendoturik,
bere graziaz ezarteintu elgarreki baketurik.

Nor da gizon modorroa harzaz orhit eztena
eta gero halakoa gaitz erraiten duiena?
Ezta gizon naturazko hala egiten duiena.
Zeren eztu ezagutzen hala hongu egina.

EZKONDUIEN KOPLAK

EZKONDUEN KOPLAK

Jangoikoa, edetazu bertzerena gogotik!
Bera kaptiba da eta ni gathibu hargatik.

Ni gathibu nadukana kaptiba da bertzeren.
Ene ditzak hala egin du ni gathibu bigaren.
Gogo honez izanen niz, bizi baniz, bataren,
bana bortxaz baiezila ez jagoitik bertziaren.

Bertzerena har dazanak beretako amore
oborotan ukhenen du plazer bano dolore.
Batzarriak bekhan eta beldurreki dirate;
guti uste dutenian gaitza bertan sor daite.

Honestea bertzerena erhogoa handi da.
Plazer baten ukhenen du anhitz malenkonია.
Begiez ikus, ezin mintza; han dakusat nekia.
Beriareki datzarian, enetako aizia.

Perileki baiezila ezin noake hargana
eta agian, hark orduian ezpaituke aizina.
Badu ere, beldur date; bertan doha harzara.
Nik nahien dudanian, bertzek besoan daratza.

Alhor hartan hel badakit ereitera hazia,
eta ene bada ere lastoa eta bihia,
ez bat hori ahal duket, ezetare bertzia.
Lan eginaz esker gaixto, galdu irabazia.

Bertzerentzat gelditzen da ene zuzenbidia.
Agian gero alabareki ezkonduko semia.

Amoria ehork ere eztu nahi partitu.
Nik eztakit bertziak bana ni ari niz bekhatu.
Beriareki ekhustiaz hain hain noha penatu!
Hek dostetan, ni neketan, orduian errabiatu!

Jelosiak eztitzaket nik gaitz erran sekula.
Maite nuiena nahi enuke ehork hunki liazadan.
Bertzerenaz izan nuzu amoros lekhu batetan,
berriagana jelosturik desesperatzer nintzan.

Amoria ezin zentzuz ezin daite goberna.
Anhitzetan honesten du guti behar duiena.
Arnoak bano gaizkiago ordi diro persona.
Sarri estaka, berant laxa hark hatzeman dezana.

Amoria itsu da eta eztazagu zuzena.
Eztu uste bertzerik dela lekot maite duiena.
Suiak bano gaizkiago erra diro gizona.
Itxasoak ez iraungi eratxeki dadina.

AMOROS SEKRETUKI DENA

ISILPEKO MAITALEA

Andre eder jentil batek bihotza deraut ebatsi.
Harzaz orhit nadinian, deus ere ezin iretsi.
Nik hura nola nahi nuke hark banentza onhetsi.
Ezin benturatuz nago beldur dakion gaitzi.

Mirail bat nik ahal banu hala luien donoa,
neure gogoan nerakutson sekretuki han barna,
han berian nik nakusen harena ere nigana,
hutsik ezin egin nezan behin ere hargana.

Ene gaizki penatzeko hain ederrik sortu zen!
Gaoaz eta egunaz ere gaizki nizi penatzen.
Harekila bat banadi, bihotza zait harritzen.
Neure penen erraitera are eniz ausartzen.

Ene gogoan baliaki, maite bide ninduke.
Ni errege balin banintz, erregina lizate.
Hura hala nahi baliz, elgarreki ginate;
haren haurrak eta eniak aurridera oso lirate.

Balinetan nik banerro hari neure bihotza
eta gero balin balit respuesta bortitza,
dardoak bano lehen liro erdira ene bihotza.
Duda gabe eror nainde han berian hilhotza.

Artizarrak bertzetarik abantaila darama.

Halaber da anderetan ni penatzen nuiena.
Hanbat da eder eta jentil, harzaz erho narama.
Zori honian sortu date haren besoan datzana.

Ene gogoia nola baita zuzen jarri hargana,
haren'ere Jangoikoak dakarrela nigana,
Ene pena sar dakion bihotzian barrena,
gogo hunez egin dazan desiratzen dudana

AMORROSEN PARTITZIA

MAITALEEN ALDENTZEA

Parti albanengidio, hark ezluke parerik;
Alabana nik eztizit hain hon deritzadanik.

Amore bat onhetsi dut guziz soberatuki;
ene arima eta bihotza josi dira hareki.
Haren irudi ederrori begietan ehoki;
harzaz orhit nadinian, bihotza doat ebaki.

Nik hargana hanbat dizit amorio handia,
harekila egoitiaz ezpaneinde enoia.
Harganiko partitzia ene eihargarria;
berriz ikus dirodano, bethi malenkonia.

–Elas, ene amoria, nola nuzun penatzen,
zurekila ezin bathuz bihotzian erratzen!
Ene gaizki penatzeko segur sorthu zinaden.
Penak oro hon lirate zu bazina orhitzen.

Mintzatzeko zurekila gau bat nahi nikezi,
hilabete konpliturik hura luza baledi,
arranguren khondatzeko asti nuien frangoki,
ezein ere beldur gabe egoiteko zureki.

Orai porogatzen dizit dakitenen errana:
ehork utzi eztazala eskuietan duiena.
Elas, itzul albaneza iragan den denbora,
segur orai enikezi dudan gogoanbeharra

Denbora hartan ohi nizin nik zugatik dolore;

orai aldiz zure faltaz muthatu niz ni ere.

–Malenkonia etzitela; badukhezu amore;

bana ordu bazinduke zentzatzeko zuk ere.

Badakizu, dolorian partaide niz ni ere,

eta zure muthatzeko ez ogenik batere.

–Neure gaizki penatzeko har zintzadan amore;

jagoitiko z ukhenen dut nik zugatik dolore.

AMOROS JELOSIA

MAITALE JELOSKORRA

–Beti penaz izatia gaitz da, ene amore.
Beti ere behar duta nik zugatik dolore?

Amore bat ukhen dizit miragarri jentilik.
Harekila nintzarian enuien nik faltarik.
Nik jagoitik ezin nuke hura bezain maiterik.
Haren minez orai nago ezin hilez bizirik.

Norkbait ere amoria niri daraut muthatu.
Nik eztakit zer den, bana estamendu berri du.
Ohi nola aspaldian nahi etzait mintzatu.
Zerk andere hantu duien behar dizit galdatu.

Sekretuki behar dizit harekila mintzatu.
Ordu hartan jagoitiko ezai ezpa baketu.
Niri untsa ezpadagit, behar dizit pintatu;
ene buruia ziaidazu harendako abastu.

–Amoria, nor izan da gure bion artian?
Muthaturik bazabiltza ia aspaldi handian.
Nik zugana dakidala faltatu eztut bizian.
Biok behin sekretuki nonbait mintza gitian.

Ehon ere eztakusat nihaur bezain erhorik.
Nik norgatik pena baitut hark ene eztu axolik.
Zuhur banintz, banintzande ni ere hura gaberik;
alabana, ezin utzi behin ere gogotik.

Jende honak, bihotza daut bethiere nigarrez,
neure amore xotiltua galdu dudan beldurrez.
Gaoaz lorik ezin daidit haren gogoanbeharrez;
gogoanbehar handi dizit bethe nuien adarrez.

Jangoikoa, edetazu amoria gogotik
eta haren irudia ene begietarik!
Hark nigana eztaduka untsa leialdaterik.
Ni ere elikaturen niz orai hura gaberik.
Saroia da lohitu eta eztut haren beharrik.
Nahi badut, ukhenen dut orai ere berririk.

POTAREN GALDATZIA

MUSU-ESKEA

–Andria, Jeinkoak drugazula! Orai berdi girade.
Ni errege balin banintz, erregina zinate.
Pot bat othoi egidazu; etzaizula herabe!
Nik zugatik dudan penek hura merexi dute.

–Eia, horrat apart'adi! Nor uste duk nizala?
Horlako bat eztuk uste nik ikusi dudala.
Horrelako hitz gaixtorik niri eztarradala.
Bertzer erran al baititza; enuk uste duiana.

–Andre gaixtoa bazinade, nik eznaidi kondurik.
Ziren zirena baitzira, zuzaz pena dizit nik.
Ene ustian, eztut erran desonesta den gauzarik.
Pot bat niri eginagatik, etzinduke laidorik.

–Hire potak, baziakiat, bertze gauza nahi dik.
–Anderia, azti zira nihaurk erran gaberik!
–Bada, utzi albainenzak ni holakoz ixilik!
–Horrein gaitz ziraden gero, eginen dut bertzerik.

Bizi nizan egunetan, bada, etzitut utziren;
nik zer orai nahi baitut, heben duzu eginen.
–Uste diat eskuiarki ez izala burlatzen.
Gizon hunek orai nuia heben laidoz beteren?
Eiagora, nik zer daidit? –Zaude ixilik hanbaten

Etai lelori bai lelo pota franko, bertzia bego!
Andria, mintza al baitzinde bertze aldian emiago.

AMOREZ ERREKERITZIA

MAITASUN-ESKARIA

–Benedika fortuna! Ala enkontru hona!
Orai begietan dizit desiraten nuiena.

Ene maite maitena, egidazu zuzena!
Joan duzuna ekhardazu, ezpa eman ordaina.

–Nik dakidan gauzarik eztadukat zurerik.
Lotsaturik jarri nuzu, ezpaitakit zegatik.

–Eztuzula beldurrik, eztukezu perilik.
Gure auzian ezta izanen zuhur bezi jujerik.

–Eztut egin gaizkirik ukheitako perilik,
ezetare zerengatik behar dudan auzirik.

–Bada, neure maitia, nik diotsut egia:
arrobotu nuzu eta balia bekit neuria.

–Ni enuzu ohoin arrobotzer nizana.
Orai, othoi, enadila ogen gabe difama.

–Enetako ohoin zira ohoin ere handi zira
Nik beharren nuien gauza daramazu zurekila.

–Ni enuzu jakintsu; klarki erran ezazu,
ehork untsa adi zitzan nahi balin baduzu.

–Gizonak duien maitena baietare hobena
bihotzeko pausua du eta bere lo huna.

Orai lorik ezin daidit, bihotzian ez pausurik.
Haiek biak galdu ditut, amoria, nik zugatik.

Untsa pentsa badezazu, gaizki arrobotu nuzu;
zor handian zaude eta othoi untsa egidazu.

–Galdu balin badituzu, zeren ogen derautazu?
Nik dakidan lekharik ni baitara eztituzu.

–Orai egun batetan zenaudela pentsetan,
hanbat zuzaz amonatu geroz nuzu penatan.

–Horla erraitia erraz duzu; erho botzen badakizu.
Zure pena diozunok nonbait handi bide'ituzu.

–Hanbatere handi tuzu, ezin erran nitzakezu.
Egiara baziniaki, urrikari nangidizu.

–Penak handi badituzu, axeterrik aski duzu.
Sarri sendoturen zira; larruioi oso duzu.

–Zauri banintz larruian, bada axeter herrian.
Ene mina sendo ez liro zuk baiezi bizian.

Zure irudi ederrak eta maina jentilak
gaizkiago zauri nizi ezi dardo zorrotzak.

Bihotzian zauri nuzu eta gathibatu nuzu.

Amoretan har nazazu; nik dudana zure duzu.

Ametsetan, agerritan, ni zugatik doloretan.

Hitz bat honik erradazu hil ez nadin, othoi, bertan.

–Zer nahi duzu darradan gauza horren gainian?

Ni nolakorik aski duzu bertzerik ere herrian.

–Bertze oroz gaisetik hanbat maite zitut nik,

mundu oro utzi niro zure amorekatik.

Albanerra egia, nik dut pena handia.

Sekretuki mintza giten biok, othoi, maitia.

AMORROSEN DISPUTA

MAITEMINDUEN LISKARRA

–Uztazu hurrantzera, amore maite!
Orai partitzeko damu ginate.

–Amodiak, othoi parti gitezen,
jendiak diradela hasi bekhaitzen.
Laidok hartu gabe geldi gitezen,
jendek irrigarri gerta ezkiten.

–Elas, amoria, ene galdua!
Jamas zurekila enainde enoia.
Bizirik partitzia pena handia.
Honein sarri utzi nahi nuzuia?

–Nihaurk ere gerthuz maite bazituz;
onerizte gabez uzten etzituz.
Bana Jeinkoaren nuzu beldurtuz;
sobera digizi egin bekhatu.

–Orano, amore, gazte gituzuz;
Jeinkuaz orhitzeko lekhu diguzuz.
Are elgarreki behar diguzuz.
Orai partitzeko damu gituzuz.

–Bekhatu honetan hilen bagina,
damnatu lukezu ene arima.
Etzitela engoitik nitan engana;
niri phorogurik eztidazula.

–Zineste bat dizit gogoan honela:
nik nola dadukat amore zugana,
Jeinkoari ere eder zaikala;
hargatik gaitzetsi ezkitzakela.

–Horlako lausenguz utzi nazazu;
nola erhoturik narabilazu.
Othoitzen nitzazu: niri euztazu.
ene gogoa untsa eztakusazu.

–Nola diostazu horlako hitza?
Bethi dadukazu tema borthitza.
Joan daraudazu lehen bihotza,
gero gathibatu neure gorputza.

–Horlazeko erantzutez utzi nazazu!
Geldi bazinite nahi nikezu.
Gure etxian ohar badakizkigu,
biok jagoitiko z galdu gituzu.

–Jendiak so daudia bethi gugana?
Nihaurk sekretuki nator zugana;
zuhaurk dakikezu noiz den aizina.
Neke etzaizula jitia nigana.

–Pitxer ebilia hautsi diohazu;
zuk ni laido handiz betheren nuzu.
Othoitzen nitzazu, niri uztazu;
nizaz atseginik ezin dukezu.

–Amore maitia, diotsut egia:
zutan diagozu ene bizia;
nahiago dizit zure ikhustia,
ezi neuretako herri guzia.

–Horlako lausenguz utzi nazazu.
Ixil bazinite nahi nikezu.
Jeinkoaz orhitzeko ordu lukezu.
Bertzerik har ezazu; niri uztazu.

–Jeinko beldurturik jarri ziraia?
Halaz despeditu nahi nuzuia?
Hebetik joan gabe ene buruia
egin behar duzu ene nahia.

–Orai nahi nuzuia heben bortxatu?
Aldi honetan, othoi, utzi nazazu!
Bertze aldi batez jinen nitzazu;
nahi duzunori orduian daidizu.

–Haraitzinakorik duzu errana
utzi dazanorrek eskuian duiena,
nahi duenian eztukeiela.
Hizak haribira, dugun egina!

–Orai egin duzu nahi duzuna.
Eman darautazu ahatgeizuna.
Maradikatzen dut neure fortuna,
zeren jin bainendin egun zugana.

–Amore, etzitela othoi despara!
Honat begitartez itzul zakitzat!
Ni baitan dukezu adiskide bat;
balia dikezit senhar gaixto bat.

ORDU GAITZAREKI HORRAT ZAKITZAT!

ZOAZ HEMENDIK ORDU GAIZTOAN!

Orai behar duguia konkista berri?
Eztei iraganez gomitu handi?
Hanbat etzirade andere larri.
Merexi duzuna narzake sarri.

AMORE GOGORRAREN DESPITA

MAITALE BIHOZGABEAREN ERDEINUA

Andre eder jentil batez hautatu zait begia.
Herri orotan gauza oroz eztu bere paria.
Othoitze bat banegion larradala egia,
biderikan lizatenez nintzan haren grazian

Respostuia eman deraut luzamendu gaberik:
–Kortesia hon deritzut nik zuri hain segurki.
Bertzerik nitan eztukezu; abisatzen zitut nik.
Gazte zoroa nizan arren, enukezu hargatik.

–Zu gaztia bazir'ere, adimendu hon duzu.
Nik zugatik dudan pena, othoi, sendi ezazu;
zuretako har nazazu, bizi nahi banuzu.
Ni zugatik hil banadi, kargu handi dukezu.

–Ohoria galtzen dela plazergitia gaitz duzu.
Niri horla erraitia zuri eman eztuzu.
Gaixteria egitia laido dela dakizu.
Ni erhoa, zu jakintsu, beha enakidizu.

–Zuhaur nahi bazirade, ni segretu nukezu.
Gure arteko amoria ehork etziakikezu.
Sekretuki mintzatzeko, othoi, bide idazu.
Enekila mintzatziatziaz gaitzik ezin dukezu.

–Gaizki egin dadinian, jendek sarri dakite.
Ene gaizki egitiaz enek laido lukeite.

Zu eta ni elgarreki untsa ezin ginate.

Zaude ixilik; zoaz horrat eta hobe baitate!

–Hitz horrezaz erdiratu deraudazu bihotza.

Nik zugatik dudan pena hanbat ere handi da,

zuzaz beraz ezpanadi orai bertan konsola,

ene arima jalgiren da falta gabe kanpora.

–Arimaren jalgitia neke handia duzu.

Orai duzun penegatik zuria egonen duzu.

Horrelako banitatez niri segur uztazu.

Probetxurik eztukezu eta zinhets nazazu.

–Zurekila gaizki baniz, nola bizi nintzande?

Ene bihotz eta arima zurekila dirade.

Bihotz eta arima gabe ehor ezin lizate.

zu eta ni elgarreki untsa ahal ginate

–Jauna, gertuz hik dadukak porfidia handia.

Ixil endin nahi nitek, ala ene fedia!

Hitz gutitan adi ezak, nahi baduk, egia:

hiretako eztiadukat gertuz neure buruia.

–Hori horla lizatela nizin neure beldurra.

Andriak hon derizanari ezpadaki mesura,

ni lehenik eta gero amoros oro galdu da.

Nik zuri hon baderitzut, gaitzi eztakizula!

Egundano izan daia ni bai ditxatakorik?
Ni amoriak enu maite, nik hura ezin gaitzetsi.
Uste dizit narraiola ezin dukedanari
Zeren, bada, hon derizat hon ezteriztanari?

Jangoikoa, mutha ezak, othoi, ene bihotza,
amoriaren, hark bezala, nik eztudan axola.
Bortxaz ere gaizki bano hongu egitia hobe da.
Nihaurk ere utziren dut hon ezteriztadana.

Andre faltaz eniz hilen balinba ni lehena!
Oroz etsi behar dizit, non baitate hobena.
Heki ezin medra naite, bai gal neure arima.
Bategatik sarri niro diren oroz arnega.

MOSEN BERNAT ETXAPARERE KANTUIA

MOSEN BERNAT ETXEPAREREN KANTUA

Mosen Bernat, jakin bahu gauza nola jinen zen,
Bearnora gabetarik egon ahal intzanden.

Heldu behar duien gauzan ezta eskapatzerik.
Nik ogenik ez nuiela hongigitez bertzerik,
bidegabek haritu nu bide ez nuien lekhotik,
erregeri gaizki saldu, gertuz ogen gabarik.

Jaun erregek mezu nentzan joan nengion bertarik.
Gaitzez lagola entzun nuien, bana nik ez ogenik.
Izterbegier eneien malizian lekhurik,
joan nendin, enagien ogen gabe ihesik.

Balinetan joan ezpanintz, ogenduru nintzaten;
ene kontra faltseria bethi zinhetsi zaten.
Justizian entzun banintz, sarri jalgi nintzaten;
haren faltaz hasi nuzu jaugitiaz dolutzen.

Bertzen gaitzaz zentzatzia zuhurtzia handi da.
Izterbegi duien oro nitan bedi gaztiga.
Abantailan dabilela albailedi segura.
Gaitza apart egoiztea bethiere hobe da.

Ni, gaixoa, etsaiari nihaur jin niz eskura.
Ene untsa eginak ere orai oro gaitz dira.
Haren menian ezpanengo, nik nukeien zuzena.
Mirakulu banagi ere, orai ene ogena.

Falstu testimoniotik ezin ehor begira.
Halaz kondemnatu zuten Jeinkoa ere hiltzera.
Bekhatore gira eta mira eztagigula,
balinetan bide gabe akusatu bagira.
Pazientzia dugun eta Jeinkoak gitzan aiuta!
Malizian dabilena berak diro mendeka.

Jangoikua, zu zirade egiazko jujia.
Zure gortean bardin dira handi eta xipia.
Norkbait ere egin deraut malizia handia.
Haier hura, othoi, barkha; niri balia egia.

Jangoikoa, zuk begira etsaiaren menetik.
Nik eniak badakuskit ene gaitzaz bozturik,
zure eskuiaz dakuskidan heiek gaztigaturik,
ene gainian eztagiten uste duten irririk.

Jangoikua, egin dizit zure kontra bekhatu.
Haiez nahi enuzula, othoi, heben punitu.
Erregeri, dakidala, nik eztizit faltatu,
zeren egon behar dudan heben hanbat gatibu.

Zuganako hutseginez nahi banuzu punitu,
errege eta bertze oro ene kontra armatu,
gogo honez nahi dizit zure egina laudatu
eta etsaiak didan pena pazientki haritu,
nahiz heben pena nadin, arima den salbatu.
Haiek zer merexi duten zuhaurorrek ikhustzu.

Penak oro jiten dira Jeinkoaren nahitik
eta berak permititzen oro hobenagatik.
Agian hula ezpanango, hil nintzanden engoitik.
Ene etsaiak, galdu ustian, ene hona egin dik.

Berak batzu hil dirade; ni are nago bizirik.
Hongi egin uste baitut ohorezki jalgirik,
gaitza nola, hona ere jauginen da bertarik.
Gaitz ekhusi eztuienak hona zer den eztaki.

Hongi egitez, gaitz sofritud behar dugu salbatu.
Pena eta miseria nik enuien dastatu.
Orai dakit: Jangoikuak enu nahi damnatu,
heben ene penatzera zaidanian orhitu.
Urhe hunak behar dizi suian untsa purgatu.

Bere nahi ezpanindu, eninduken punitu.
Aitak bere haur maitia gaztigatu ohi du;
bihi hunak gorde gabe behar dizi xahutu.
Jangoikoak nizaz ere hala agian egin du.

Mosen Bernat, pentsa ezak kartzel hori gaitz bada,
nonbait ere ifernua are gaitzago dela.
Heben hik badukek, bana haiek ez, nork konsola.
Penak heben fin dik sarri; haienak ez sekula.

Batre minik heben eztuk, lekot jalgi nahia;
han direnek bethi die suian pena handia,
pena handi, izigarri, ezein pausu gabia.
Harzaz orhit adi eta dukek pazientzia.

Bertzen gaztigari intzan, orai adi gaztiga.
Pena honez orhit eta hangoa ezak kojita.
Hebengoaz bertzekoa albaheza eskusa,
untsa enplegatu dukek heben eure denbora.

Hor balego, gaztiga iro ihaurk bertze guzia.
Bada, orai gaztig'ezak, aldiz, eure buria,
kirisailuari nola hiri hel eztakia:
bertzer argi egin eta erratzen dik buruia.

Hiri egin badaraie bidegabe handia,
Jeinkoari gomend'ezak eure gauza guzia.
Hark orori emanen dik bere merexituia:
gaizkigiler pena handi, pazienter gloria.

Eztazala gaitzeriztez damna heure buruia,
desiratuz gaixtoari hel dakion gaizkia.
Jeinkuari egiten duk injuria handia:
hura borrar egiten duk, juje eure buruia.

Zertan juja hik baitazak eure izterbegia,
hartan kondemnatzen dukek ihaurk eure buruia;
eta hartan eztakidik eskusarik balia.
Erakustak ehon ere nor den ogen gabia!

Jangoikua, orai dizit egiteko handia.
Hiri honetan eriotzez hilzen duzu jendia.
Gathibutan hil enadin, gizon ogen gabia,
osorik, othoi, jalgiteko zuk idazu bidia,

izterbegiak eztagidan gibeletik irria:
ogenduru zuian eta han galdu dik bizia.

Libertatia nola baita gauzetako hobena,
gathibutan egoitia hala pena gaitzena.
Ni bezala ezadila, othoi, ehor engana,
Ezetare hitz orotan fida ere gizona.
Jangoikua, zuk begira niri ere zuzena.
Amen.

KONTRAPAS

KONTRAPAS

Heuskara,
jalgi adi kanpora!

Garaziko herria
benedika dadila!
Heuskarari eman dio
behar duien thornuia.

Heuskara,
jalgi adi plazara!

Bertze jendek uste zuten
ezin eskriba zaiteien.
Orai dute phorogatu
enganatu zirela.

Heuskara,
jalgi adi mundura!

Lengoajetan ohi intzan
estimatze gutitan.
Orai aldiz hik behar duk
ohoria orotan.

Heuskara,
habil mundu guzira!

Bertzeak orok izan dira
bere goihen gradora.
Orai hura iganen da
bertze ororen gainera.

Heuskara!

Baskoak orok preziatzen,
heuskara ez jakin harren.
Orok ikasiren dute
orai zer den heuskara.

Heuskara!

Oraidano egon bahiz
inprimitu bagerik,
hi engoitik ebiliren
mundu guzietarik.

Heuskara!

Ezein ere lengoajerik,
Ez frantzesaz ez bertzerik,
orai ezta erideiten
heuskararen parerik.

Heuskara,
jalgi adi dantzara!

SAUTRELA

SAUTRELA

Heuskara da kanpora, eta goazen oro dantzara!

O, heuskara! Lauda ezak Garaziko herria,
zeren hantik ukhen baituk behar duian thornuia.
Lehenago hi baitintzan lengoajetan azkena;
orai, aldiz, izanen iz orotako lehena.

Heuskaldunak mundu orotan preziatu ziraden,
bana haien lengoajiaz bertze oro burlatzen,
zeren ezein eskripturan erideiten ezpaitzen.
Orai dute ikasiren nola gauza hona zen.

Heuskaldun den gizon orok altxa beza buruia,
ezi huien lengoajia izanen da floria.
Printze eta jaun handiek orok haren galdia,
eskribatus hal balute ikhasteko desira.

Desir hura konplitu du Garaziko naturak
eta haren adiskide orai Bordelen denak.
Lehen inprimitzalia heuskararen hura da;
basko oro obligatu jagoitiko z hargana.

Etai lelori bai lelo, leloa zarai leloa!
Heuskara da kanpora eta goazen oro dantzara!

DEBILE PRINCIPIUM MELIOR FORTUNA SEQUATUR

EXTRAICT DES REGESTES DE PARLEMENT

PARLAMENTUKO ERREGISTROEN LABURTZAPENA

Supplie humblement François Morpain, maistre Imprimeur de ceste ville de Bourdeaux, que pour imprimer un petit tracte intitule, Linguae vasconum primitie, luy a convenu faire plusieurs fraiz et mises. A ceste cause plaise a la Court inhibitions estre faictes a tous les Imprimeurs libraires de ce Ressort de imprimer ou faire imprimer le dict Tracte, et a tous marchands de nen vendre dautre impression dans troys ans a peine de mil livres tournois et ferez iustice. Veue laquelle requeste la court fait les inhibitions requises par le dict Morpain a peine de mil livres tournois. Faict a Bourdeaux en Parlement le dernier iour Dapvril, mil cinq cens quarante cinq.

Collation est faicte.

De Pontac.

EUSKALDUNON HIZKUNTZAREN HASIKINAK

LINGVAE VASCONUM PRIMITIAE

Bernard Etxepare

Eiheralarreko apaiza

1545

Erregeren abokatu zuzen eta nobleari,
bertute eta ontasun guztiez jantziari,
bere jaun eta jabe Bernard Leheteri
Bernard Etxeparekoak, haren zerbitzari txipiak,
gogo onez
goraintziak, bakea eta osasuna!

Euskaldunak jende trebe, kementsu eta jentilak direnez, eta haien artean betidanik izan denez eta badenez zientzia guztietan letratu handirik, harriturik nago, jauna, nola ez den bat bera ere ahalegindu bere hizkuntza propioaren mesedetan obraren bat euskaraz egiten eta idazten, mundu guztian nabarmen gera zedin beste hizkuntzak bezain egokia dela idatziz erabiltzeko. Eta arrazoi honengatik gelditzen da euskara abaildurik, inolako ohorerik gabe. Eta beste nazio guztiek uste dute hizkuntza honetan ezin deus ere idatzi daitekeela, gainerako guztiek berean idazten duten eran.

Eta orain zuk, jauna, noble eta naturazkoak bezala, euskara estimatzen, goratzen eta ohoratzen duzunez gero, zuri, neure jaun eta jabe bezala, bidaltzen dizkizut euskarazko bertso batzuk, ene ezjakintasunaren arabera onduak; hain zuzen ere, jauna, haiek ikusirik eta zuzendurik nahi duzun bezala, ondo baderitzozu, inprimarazi ditzazun, eta zure eskutik izan dezagun guztiok harribitxi ederra, hots, euskara, orain arte ez bezala, behingoz inprimatua; eta zure hasiera honetatik aurrera areagotu, jarraitu eta argira atera dadin mundu guztian; eta besteek bezala, euskaldunek ere izan dezaten bere hizkuntzan idatzirik dotrinaren bat eta plazer hartzeko, solas egiteko, kantatzeko eta denbora iragateko materia; eta geroago etortzen direnek arrazoi gehiago izan dezaten huraxe hobetzeko; eta behaturik gera gaitezen guztiok Jainkoari otoitz egitera, eman diezazkizun mundu honetan oparoa bizitza eta bestean paradisia. Hala bedi.

DOKTRINA KRISTAUA

DOKTRINA KRISTIANA

Munduan den gizon orok pentsatu beharko luke
nola formatu duen Jaungoikoak batbedera,
nola sortu duen gure arima bere irudi propioaren arabera
eta nola hornitu duen memoriaz, borondatez eta enteleguaz.

Ugazabek ez dute morroi gaiztorik eduki nahi
eta ez soldatarik eta ordaindu nahi zerbitzatuak izan gabe.
Jaungoikoa berdin-berdin ari da gurekin:
ongi egiten ez badugu, ez digu loriarik emango.

Morroiek denbora luzea ematen dute gure zerbitzura,
soldata apur baten truke lan handia hartzen.
Guk adina jaso beharko luke Jaungoikoak ere:
orain zerbitzatu behar dugu, gero loria eman diezagun.

Inon ez dut ikusi garirik biltzen denik, hazirik erein gabe;
ereiten den haziaren arabera, halaxe biltzen da eskuarki.
Obra onek ordain-saria frankoki izango dute,
baita ere bekatuek zigorra seguruenik.

Jainkoa egunero ongi ari zaigunez gero,
guk ere hala behar dugu hartaz ondo oroitu,
gure hasiera eta amaiera huraxe dela pentsatu
eta goiz eta arratsez arretaz haren izena laudatu.

Arratsean

Arratsean, etzatean, Jainkoari gomenda hadi
eta otoitz egiok arrisku guztietatik libra hazan.
Gero, iratzar hadinean, berehala oroit hadi
zenbait otoitz debozioz esateaz.

Goizean

Ahal baduk, elizara joan hadi goizean
eta Jainkoari gomenda hadi bere etxe santuan.
Hara sartzean, pentsa ezak nor duan aurrean
eta norekin mintzo haizen han hagoen artean.

Hilerrian

Ongi oroit hadi hildakoez hilerrian sartzean;
hi bezalakoak zirela bizi ziren artean.
Haiek bezala hil behar duk eta ez dakik ordua.
Otoitz egiok Jainkoari barkamena eman diezaien.

Bataiarria

Elizara joaten haizenean, begira ezak bataiarria.
Pentsa ezak han errezibitu duala fedea,
Jainkoaren grazia eta salbatzeko bidea.
Hari emaiok lehen eskerrona.

Gorputz santua

Bertan hagoela, begira ezak gero non den gorputz santua.
Pentsa ezak hura dela hire salbatzailea;
adora ezak debozioz eta eska grazia
harrera duina eman diezaan azken unean.

Gurutzea

Gurutzefika ikus eta oroit hadi orduan
nola haizen haren odol santuaz erredimitua.
Hark herioa hartu dik hiri bizia emateko.
Pentsa ezak nola itzuli hari bere ordaina.

Andre Dona Maria

Andere ona den lekura altxa itzak begiak.
Mundu guztia ere ez dakiake hura bezainbeste balia.
Hura zagok Jainkoaren hurrenena glorian
eta dohain guztiak ditik bere eskuan nahi duenean.

“O, Andere goresgarria eta ama eztia!
Zugan dago bekatarien esperantza guztia.
Zugana nator ni, bekatari handia,
ene arima salbatzen balia zakizkidan”.

Santuei

Santuei ere egiek heure gorazarrea,
bereziki heure deboziokoa denari.
Oroit zein santuren besta den egun hartan
eta noren izenean jaso den eliza.
Arduraz egiek otoitz, balia dakizkian.

Iganderako otoitza

“Miserikordiaz betea zaren jaun ezta,
otoi, entzun iezadazu neure otoitza!
Bizi naizen artean eta heriotzako orduan
emadazu, otoi, osorik neure adimendua,
aldatu ere gabe zure fede santuan,
gauzak ongi egin ditzadan neure azken unean.

Eta orduan emazkidazu indarra eta grazia
bekatuez dagokidan damua izateko
eta neure aitortza bikainki egiteko,
neure bekatu guztiez barkamena izan dezadan
eta duintasunez errezibi dezadan zure gorpuz santua
eta baita behar diren beste sakramentuak ere.

Orduan etsai gaitza etorriko denez tentatzera
eta bere arte guztiaz nola engaina nazakeen ikustera,
emazkidazu, otoi, Jauna, zure santuak laguntzat,
ene etsaiak azpira ez nazan neure azken unean.

Har ezazu ene arima orduan, otoi, zure glorian,
zure odol santuaz erredimitua izan baita,
eta han ikus dezadala zure begitartea
eta santuekin batera lauda dezadala zure maiestatea”.

Goiz eta arratsez egiten duk biluztea eta beztitzea,
eta gorputzaren zerbitzutan bazkari-afaria.
Arima salbatzeko, Jainkoaren ohorez
ez zaiala, otoi, neketsu gerta gauza horiek egitea,
egunero ezin bada, astero bederen igandean.

Itsutasun handi hau ikusten dut gure artean:
nola dugun hainbeste zerbitzatzen gure etsaia
eta ez dugun ezagutzen Jaungoikoa, gure salbatzailea,
guztioak dakigunean horren bidegabekeria.

Anitz jendez miraz nago –neure buruaz lehenik–,
nola gauden mundu honekin hain bortizki josirik,
hainbat jende dakusagula honek engainaturik.
Orain artekoak igorri ditu guztiz biluzik
eta ez dute gerokoek ere hortik eskapatzerik.

Pertsona hil eta gero, hiru zati egiten dira:
haren gorputza usteltzera egozten da lur hotzean,
ondasunak ahaideek banatzen dituzte bertan,
eta arima gaixoa han dabil, ahal duen tokira egiten,
hain bidaia bortitzean konpainia falta zaiola.

Igandean arretaz pentsatu behar dugu
zenbatetan egin dugun aste hartan bekatu;
oroitu behar dugu eta Jainkoari barkamena eskatu.
Eta atorra bezala, arima ere astero garbitu.

Bi puntutan datza gure zori guztia:
ongia egiten badugu, seguru dugu paradisia;
bekatutan hiltzen dena, bertan da kondenatua.
Ez da beste biderik; hoberenari errepara.

Inon ere ez dut ikusi hain laxoa den artzainik,
bere ardietatik otsoa kentzen ez duenik.
Jaungoikoak emanda dugu gure arimaren ardura;

nola gobernatzen dugun, batbederak so begi.
Hartaz, noski, kontu hertsia eman behar diogu
bere odolaz hain garesti erosi duenari.
Hala sinesten ez duena engainatuta dago.

Pasio santua kontenplatu behar dugu
eta haren pena handia bihotzean sentitu:
nola zegoen gurutzean guztiz zauriz betea,
oin-eskuak iltzaturik eta biluzik,

ohoinekin urkaturik, gaizkile bezala,
eta arantzez koroaturik mundu guztiaren jabea,
haren gorputz preziatu eta delikatua
gaizki eskarniaturik eta zatikatua.

Ai! Nola zegoen orduan haren ama tristea,
haren ama maitea eta mundu guztiaren habea,
oinaze haietan ikusten bere seme maitea
eta begien aurrean hiltzen mundu guztiaren bizia zena!

“Bihotzean astintzen naute baiki, ama eztia,
zure orduko oinazeak eta bihotz-zauriak;
nola begiekin zenekusan zure jabe handia
alde guztietatik zeriola odol preziatua.
Eta ohartu naiz nigatik izan zirela haiek”

Oroit hadi nola egin duan anitz bekatu
eta haiengatik askotan kondenatua izatea merezi izan duan;
Oroit nola hauen bere miseriak zaindu
eta, damua izan baduk, momentuan guztia barkatu.

Eta, halere, agian hik laster egingo duk berriz bekatu!

Oroit hadi Jaungoikoaren maiestate handiaz.

Eskuan dauzka zerua, lurra, itsasoa,

salbatzea, kondenatzea, herioa eta bizia.

Guztira hedatzen da haren agintea.

Haren agindua datorrenean, ezin eskapa dakioke inor.

Mundu honetan erraz engaina dezakegu batak bestea,

baina bestean egiatik abiatuko da batbedera.

Orduan azalduko da nolakoak izan garen;

eginak, esanak, pentsatuak, guztiak egingo dira ageriko.

Oroit hadi Jainkoaren justizia handiaz:

nola guztiok eman behar dugun kontu zehatza

eta egindako guztiez gure merezia jaso,

herioa –haren mezularia– datorrenean.

Ordu hartan alferrik izango da harengana jotzea:

hark inori ez dio emango ordu bateko eperik,

ezta ere estimatuko ez txiki, ez handirik.

Orduan batbederak jasango du bere zama.

Zer egingo dut nik, gaixo bekataria, orduan?

Arartekorik ez eta ene aurka epaile handia;

haren gortean inork ez du jakingo abokatu izaten.

Publikoki agertuko dira orduan kulpa guztiak.

Ea, bada! Egin dezagun guztiok orain, otoi, penitentzia!
Gero, behar-orduan agian ez dugu-eta izango astirik.
Jende asko dabil luzamenduaz engainatua,
baina inork ez du ziurtaturik egun bakarreko biritza.

Gu egunero gaude herioaren azpian.
Gertu eduki behar ditugu gure gauza guztiak,
guztiak atonduta, osasuntsu garen artean,
gero haiekin arazorik izan ez dezagun azken unean.
Nahikotxo egiteko izango dugu arima dela-eta orduan!

Pentsa, otoi, nola gauden bi bideren erdian,
salbatzeko bainoago, kondenatzeko arriskuan.
Inor ez dadila fida, otoi, presuntzioaz;
santuak ez ziren sartu presuntzios glorian.

Ea, bada! Hona beha, otoi, bekatari guztiak!
Bekatuagatik kondenatzen du Jaungoikoak mundua.
Zergatik, bada, bizi gara hainbat bekatutan murgilduta
eta geure hutsengatik galtzen dugu gero geure burua?

Artzainak arratsaldean biltzen ditu ardiak
eta eguraldi gaitzarekin leku egokira eramaten ditu.
Arima dela eta, batbederak pentsa beza
nola salbatuko duen hura bere amaieran.

Oinaze handia dute bekatariak infernuan,
oinaze handi, izugarri, inolako etenik gabekoa;
betiko egon behar dute hango sugar bizian.
Zuhurra denak, hara ez joateko, egin dezala penitentzia.

Herioaren kontrako armak

Gutxien uste denean etortzen da herioa
eta agian ez du emango konfesatzeko astirik.
Baina hiru gauza egiatan egiten dituen,
hiltzen den eran hiltzen dela, salbatuko da.

Lehen egia

O, Jaun ona! Aitortzen dut bekataria naizela
eta gaizki egiteaz erru handia dudala.
Bidezko ez nuen moduan ofenditu zaitut
eta dolu dut eta damu zure aurka egindakoaz.

Bigarren egia

O, Jaun ona! Honako une honetantxe asmoa dut
bekatutik gordetzeko bizi naizen artean.
Otoi, Jauna! Emazkidazu indarra eta grazia
neure bizitza guztian asmo honetan irauteko.

Hirugarren egia

O, Jaun ona! Asmoa dut garizuma denean
neure konfesioa benetan egiteko
eta baita ere jartzen didaten penitentzia betetzeko.
Otoi, Jauna! Berretsi ezazu ene borondatea!

Eta inork horiek hala egiazki egiten ez baditu,
jakin beza zalantzarik gabe ezin daitekeela salba,
bere bekatu guztiak konfesatu baditu ere.
Eta hala sinets beza bere burua engainatu nahi ez duenak.

Inongo apaiz, apezpiku edota aita santuk ere
ez du halakoa barkatzeko botererik.

Jaungoikoa betiere bihotzera begira dago;
geuk baino hobeto ezagutzen du gure gogoa;
gogoa gabe, alferrikakoak dira hitz guztiak haren aurrean.

Ondo aton ezak heure etxea egunero;
arreta jar ezak heure gauza guztietan;
eta heure lana penitentzia bilaka dakian,
Jaungoikoa lauda ezak gauza guztien amaieran.

Onekin izan ezak betiere harremana,
gaiztoekin gaizki baizik ezin haiteke-eta aprobetxa.
Ez diezaioala besteri egin heuretzat nahi ez hukeena,
ezta egin gabe ere utzi heuk nahi duana.
Lege honi segi bekio salbatu nahi duena.

Hamar aginduak

Jaungoiko bakarra adora ezak eta guztien gainetik maita.

Ez haren izenaz zin egin premiarik gabe eta banoki.

Igandeak eta jaiak debotuki santifika itzak.

Aita eta ama ohora itzak, luzeki bizi hadin.

Ez dezaala inor erail, ez eta gaitzets ere.

Nork berea baino emazte gehiagorik ez beza uki.

Ez dezaala besterena ebats, ez eduki.

Ez diezaioala lagunari ospe txarrik bizkarrera faltsuki;

Ez desira besteren emazte-alabak gaiztoki,

ezta ere ondasuna, ez bada justuki.

Horiexek dira Jaungoikoak emandako aginduak.

Zuzen bete ditzagula, haien bidez salba gaitezen.

Judizio unibertsala

Judizio unibertsalaz oroitzen ez direnez,

bekatutan bizi dira beti bere gogara.

Egun hartan gal ez gaitezen, aldez aurretik prestatu,

han orduan inork ere ez dugu-eta astirik izango.

Zuhurtzia handia da hartaz ondo oroitzea.

Erne! Erne! Mundu guztia judizio nagusira!

Zeru eta lur guztien kreatzaile handia

mundua zorrozki epaitzera heldu da.

Batbederak begira beza nola gauden apainduta!

Leku guztietara zabaltzen du agindua,
jende guztia batu dakion Josafateko bilkuran,
eta inon ere eta inor ere eskapatu gabe.
Zeru eta lur guztia daude ikaraturik.

Herioari agintzen dio, inor faltatu gabe,
bizirik dakartzala hildako guztiak aurrera;
aurrerantzean ez duela botererik izango.
Bi leku itxitan jarriko da mundu guztia:
glorian ez bada infernuan; ez dago alde egiterik.

Ozenki eta bortizki agintzen dio infernuari
han direnak luzamendu gabe igor ditzan,
arima eta gorputzetan ikusi nahi dituela
eta merezi dutena emango diela.

Jende onak! Epaile hau dela eta, ongi pentsa
nolako aginte handia duen gauza guztietan,
herioan, infernuan, zeruan eta lurrean.
Zergatik dabil, bada, bekataria haren kontra?

Itsukeria handi hau ikusten dut gure artean:
nola zerbitzatzen dugun hainbeste gure etsaia
eta ez dugun ezagutzen Jaungoikoa, gure salbatzailea,
guztiok dakigunean horren bidegabekeria.

Ebazpen larria luzatuko die arima-gorputzei, biei,
elkarrekin sufri dezaten infernuko garretan,
sekulako suan, etenik gabekoan.
Ondo pentsa guztiok, otoi, zertan den irabazia!

Egundaino ez da izan, eta ez da izango aurrerakoan,
hain judizio handirik ezta ere bortitzik.
Sortuak eta sortzeko direnak, hil eta gero pizturik,
guztiek joan behar dute hara aitzakiarik gabe.

Gauza asko behar dira judizio nagusian:
epaileak agintea izan dezan parte guztien gainean,
auzilariak bere kausa egiaz azal dezan,
baita ere defendatzaileak bere defentsa,
eta, arrazoia nork duen frogatzen denean,
epaileak sententziaz nori berea eman diezaion.

Egun hartan mundu guztiaren jabea izango da epaile,
aginte handia baitu guztiaren gainean.
Bera izango da akusatzaile eta kontzientzia.
Publikoki agertuko dira bekatu guztiak orduan.

Bekatarien kontra izango da mundu guztia orduan,
haien kreatzailea laidoztatu baitute.
Une hartan isilik eta triste izango da bekataria:
leku guztietatik itxita daude zubi guztiak.

Epaile jauna iraturik egongo da goian;
irensteko prestatuak infernua, azpian;
etsai gaitza, berriz, akusatzen ezkerreko aldean.
Bekatuak eskuinetik mintzatuko dira ozenki:
«Hemen gaituk, hire kontra, heuk egin gaituanok!».
Barnetik jarkiko zaion kontzientzia izango da okerrena.

Inon ere ez da izango estaltzeko tokirik.
Une hartan nork hartuko du agertzeko erabakirik?
Mundu guztia egongo da haien kontra jarririk;
santuak ere erabat isilik egongo dira ordu hartan;
epaileak ere ez du entzungo inolako erregurik.
Egun hartaz oroit gaitezen, otoi, hara joan aurretik.

Egun hartan non izango dira hemengo jaun-erregeak,
duke, konde, markes, zaldun eta beste jaun nobleak?
Eta haien armadako gizon sendoen balentriak?
Ordu hartan guti baliatuko zaizkie haien ahaltasunak.

Eta legelari eta teologo, poeta eta doktoreak,
prokuradore, abokatu, epaile eta notarioak?
Ordu hartan garbiki ageriko dira haien maltzurkeriak
eta gutxi baliatuko zaizkie kautelak eta berrikeriak.

Eta aita santu, kardinal, apaiz eta prelatuak?
Beren buruaz eta ardi guztienaz eman behar dute han kontua.
Haietako handiena ere noraezean ibiliko da egun hartan.
Eta berdin-berdin epaituko dira handia eta txikia.

Alferrikakoa izango da egun hartan hari helegiterik aurkeztea.
Bere gainetik inon ere ez du jaunik ezagutzen.
Desatsegina zaio maltzurkeria eta egia maite du.
Ea, bada! Egin orain guztiok, otoi, penitentzia,
gero egun hartan arazo handirik izan ez dezagun!

Haren aurretik seinale hitsak etorriko dira:
erabat atsekabeturik ibiliko dira elementuak,
eguzkia eta ilargia odoletan etzanik,
itsasoa goitik eta behetik sumindurik;
hango arrainak kanporatzen ibiliko dira izaturik.

Eta lurra izugarriro ibiliko da, guztiz dardarka,
zuhaitzek odolezko izerdia isuri bitartean.
Aire guztia, ekaitzek eta ihurtzuriak amorrarazita;
mendiak eta harriak, elkarren artean zatikatuak.
Suak erraustuta jarriko da mundu guztia.

Etorri aurretik, epaile jaunak aginduko du
lehendabizi suak gauza guztiak xahu ditzala,
likits eta kirats den guztia joan dadin mundutik.
Eta hala, erreta geratuko da lur guztia.

Tronpeta mintzatuko da gero munduan barrena:
“Hildako guztiak! Jaiki zuen hobietatik eta erdue hona!”.
Arima eta gorputzetan istantean berpiztuta,
hara joan behar dugu guztiok aitzakiarik gabe.

Airean gora igoko dira justu guztiak berehala
eta eskuinean egongo dira, epailearen aldean.
Bekatariak atsekabeturik egongo dira sugarretan lurrean,
harik eta gainean ebazpena entzuten duten arte.

Jende guztia aurrean bilduta dagoenean,
zorrozki etorriko da zerutik, santuekin batera.
Josafaten egongo da airean gora jarrita.
Arbuiatze latza luzatuko die bekatariei
eta haren hitzak zeharo birrinduta utziko ditu.

Pasio santua beregain hartu nahi izan zuenean,
jendea haren kontra armaturik etorri zenean,
hitz huts batez izaturik egotzi zituen lurrera.
Maiestate handiz epaitzera datorrenean,
nola ez du une hartan beldurtuko mundua?

Garrazki esango die orduan bekatariei:
“Ez zineten nitaz oroitu bizi zinetenean.
Zuei hainbat mesede egina naiz zuen bizitzan,
baina zuengandik ez dut esker onik inoiz izan.

Eneak dira zuek dituzuen ondasun guztiak:
gorputz eta ontasun guztiak, baita ere arimak.
Zuentzako egin ditut lurra eta zeruak,
eguzkia, ilargia eta fruitu guztiak.

Sua, berotzeko; ura, ikuzteko; airea, arnasteko;
aingeruak, zuen zaindaritzarako; santuak, bitartekari izateko.
Zuengatik eman dut gero neure bizia.
Horiengatik guztiengatik, zein da zuen ordaina?

Askotan pobrea premia gorrian ikusita,
gaixo, gose, egarri eta biluzik ikusita
eta maiz asko ene izenean limosna eskatzen ari zela,
ardura gutxi izan duzue zuek haietaz.

Baina bai atsegindu duzue zoroki ene kontra etsaia:
deabrua, haragia eta baita mundua ere.
Orain zuentzako izan dadila madarikazioa,
infernuko sua eta betirako oinazea,
eta demonio guztiak, zuen konpainia”

Ez da asko luzatuko ebazpena.
Berehala, une berean, irekiko da lurra
eta su harekin irentsiko du dena bere barnean.
Hau izango da bekatarien azken irabazia.

Ai! Zein handia izango den han damua,
damu handi, izugarri, erremediorik gabea,
hainbat jende sekulako kondenatzen denean!
O, Jaun ona! Hangoetatik begira gaitzazu, otoi!

Segidan, berengana itzuliko ditu begiak:
“Ene adiskideak! Goazen guztiok elkarrekin!
Beti eta sekulako egon gaitezen ene glorian,
desira guztiak beterik, alaitasun handian!”

Handik aurrera bi egoera besterik ez da izango:
kondenatuak, infernuan beti oinazeturik;
salbatu direnak, Jainkoarekin beti alegeraki.
Azken horien partaide egin gaitzala Jaungoikoak!

Aurrerantzean zerua ez da gehiagotan higituko:
eguzkia ekialdean egongo da geldirik
eta ilargia sartaldean, buruz buru jarrita.
Hemen eta betierean iraungo du egun honek;
alabaina, ez da gauza bizirik izango hemen.

“O, Jaun ona! Gure kreatzailea zara zu.
Bekatari bagara ere, zureak gara guztiz.
Zuk egindakoa gure erruz gal ez dadin,
bekatuz garbi itzazu, otoi, gure arimak.

Baldin gudan bekatu handia aurkitzen bada,
are handiagoa da zudan errukia.
Emaguzu, otoi, zureetakoa izateko grazia.
Zure ama anderea balia dakigula!”.

Otoitza

“Agur, Maria, anderea, dohain guztiez betea,
Jainkoaren ama birjina, berak agindu zuelako,
zeru eta lur guztien erregina merezia,
bekatarien abokatu eta kontsolatzailea!

Zugana nator ni, bekatari handia,
balia zakizkidan hertsiki otoiztera,
ez bainaiz zure izen santua aipatzeko duina,
ez zure aurrean jartzekoa, likitsa naiz eta.

Miserikordiaz betea zaren Andere handia,
ez nazazu, otoi, arbuia eta ez mespretxa!
Zuk bizkarra ematen badidazu, ama ezia,
berehala ikusten dut neure burua suntsitua.

Hain naukazu-eta gauza guztietan bertuterik gabea,
etengabe bekatutan murgildua,
betiere ardi itsua bezain galdua,
eta mundu honek eta haragiak beti engainatua!

Eta zu zeu zarenez grazia guztien ama eta iturburua,
bertute eta ontasun guztien gordelari handia
eta egundaino bekatutan narriatu gabea,
emadazu bertutetan jarraitzeko dohaina.

Zugan daude bekatarien sendabide guztiak,
esperantza, osasuna eta salbazioa.
Zuk bizkarra ematen diozuna galdua den bezala,
salbatua da orobat zure babesean dagoena.

Zuri Jainkoak aginte handia eman dizu,
haren ama, ama ere maitea, zarenez gero,
zeru eta lur guztian behar beste erabil dezazun
eta zuk eskatutako guztia konplitua izan dadin

eta beste guztiek zure eskutik lor dezaten grazia
eta zuri gomendatzen zaizuna salba dezazun.
O, Andere gorena eta paregabea,
emadazu grazia salbatzen direnetakoa izan nadin!

Hilik eta bizirik, zuri gomendatzen dizut neure burua,
eta neure gorputza eta arima eta dudan guztia.

Balia zakizkit, otoi, behar-orduetan
eta goberna ezazu, otoi, ene bititza guztia;

eta Jainkoagandik erdietsiezazkidazu indarra eta grazia
ene bekatuez penitentzia ondo egiteko,
eta gero bertutetan murgildua eramanez dezadan bizia
eta haren borondatea bete dezadan gauza guztietan.

Zorigaitzetik babes ezazu, otoi, ene gorputz pobrea.
Bekatutan ez hiltzeko grazia emadazu,
galduta ibil ez nadin betirako kondenaturik
eta salbatzeko bidea zure eskutik izan dezadan.

Eta gero, heriotza datorkidanean,
arima abiatzeko ordu ikaragarria
(oren hartan kontu zehatza eman behar baitut
eta egindakoez neuk merezia jaso),

eta jakin gabe ostatua non izango den lehen gauean,
eta ezta ere nor balia dakidakeen, zu ez bazara,
une hartan hel zakizkit, otoi, ama ezta,
bitartekari zintzoa eta neure soroslea.

Zure babesean har ezazu, otoi, ene arima tristea,
une hartan infernuko bidera jo ez dezan.
Zure seme jaunarekin adiskidetu nazazu,
bekatuak barkaturik paradisia eman diezadan,

eta nik han zure begitartea ikus

eta santuekin haren maiestatea lauda dezadan.

Eta nitaz ongi oroit zaitezten, ama eztia,

gogo onez esango dizut zuri «Agur, Maria»”.

Otoitz hau dioena, Andre Dona Maria,

gomendatutzat izan ezazu, otoi, bizitzan eta heriotzan.

MAITALEENTZAKO AHOLKUA

AMOROSEN GAZTIGUIA

Bestek besterik dute gogoan eta nik Andre Dona Maria.

Andre ona, otoi, guztioi balia dakigula!

Maitaleek hona begira lezaten nahi nuke;

ona litzatekeen gaztigua entzun lezakete agian.

Maiteño bat hautatzeko kontseilua emango nieke,

baldin eta betiko sartuko balitzaie gogoan.

Neuk ere izan dut maiteñorik,

baina handik ez dut batere probetxurik atera.

Atsekabe asko eta arima galdu, harena eta neurea ere.

Maitasunetan, atseginaldi baterako, mila dira nahigabeak.

Ba ote da maitasunetan leiala den bat bera ere,

hitz ederrez ez bada, joiien bidez gogoan aldatzen ez zaionik?

Hoberena dirudiena traidorea da askotan;

arimarentzat bederen, hoberena gaitzena ohi da.

Bekatzuko maitasuna beti izango da traidorea.

Heriotza datorrenean, nabari geratzen da egia:

gozatutako atsegin guztiak iraganak dira orduan

eta bekatua gelditzen da gero ere atsekabea sortzeko.

Atsegin asko izan badu, asko izango ditu gero oinazeak.

Leiala litzaidakeen maiteñoa nahi nuke nik,

Bizitzan eta ni hil ondoren ere balia lekidakeena.

Halakoa zerbitzatu nahi nuke bizi bitartean.

Laburra da hemen bizitza, betirakoa bestea.

Baina mundu guztian ibili ondoren, ez dut besterik aurkitu
Jainkoaren ama ona grazia guztiez betea baizik.
Inor ez da haren maitatzaile izateko duina.
Ondo zerbitza dezagun, hark jadanik maite gaitu-eta.

Hutsalak dira hura ez beste maitale guztiak.
Premiarik larrienean, faltatu egingo zaizkigu besteak.
Uste baino lehenago hiltzen gara bekatariak.
Zein galduak ibiliko garen hark laguntzen ez badigu!

Andre ona har dezagun guztiok maitale!
Beste guztiak utzi eta hura goretsi!
Hala egiten badugu, ohoratuak izango gara geu ere.
Besteengatik, eta hura gabe, ziur galduak garela guztiok!

Jainkoaz aparte, mundu guztiak ere ez du hark beste balio:
zerua, lurra, itsasoa, haren menpekoa da guztia;
Beharrezkoa bada, guztietara hedatzen du bere agintea.
Bera handia izan arren, txikia estimatzen du.
Halakoa utziz gero, non aurkituko dugu haren parekorik?

Beste maitaleen artean, bakoitza bereari baino ez zaio leial.
Inork ez du nahi berea besterekin partekatu.
Baina Ama Birjina aintzatsua hain da abegikorra
ezen, leiala izanik, guztientzat baita gertu.

Maitaleek behin bere nahia egiten badute,
beste nahikeria handiago bat etortzen zaie;
Behin ere ezin dira erabat ase atera;
Bizitza guztian dabilta gabetuak balira bezala.

Emakume eta gizon guztiok! Har ezazue Maria maitaletzat
eta berak ekarriko digu guztioi atsegina!

Emakume ederren artean Andre onak izan du dohaina
inork hura gaiztakeriaz ezin desira lezan,
hari begiratzeak berak hiltzen baitzuen gutizia likitsa.
Haren irudia ikustean ezagutuko duzu egia.

Itsasoari ur guztia, zeruei izarrak,
oihanei itzala, lurrari belarra,
egunari eguzkia, gau beltzari iluna
lehenago faltatuko zaizkie hura guri baino,
baldin eta gu harekin bagaude benetan.

Zergatik gara, bada, hain zoro gaixo bekatariok?
Goazen, otoi, guztiok Andre leial honengana!
Eta utikan, otoi, beste maitasun faltsuak!
Harekin segurua dugu behar dugun guztia!

Ai, maiteño gaixoa! Zein engainatuta hagoen!
Erokeriatan daramak heure bizitza guztia!
Eta ene Andere dohaintsuak laguntzen ez badik,
bai bizitzan bai heriotzan beti ibiliko haiz galduta.

Ahal duan ongia egin ezak denbora duan bitartean.
Herioa datorrenean, nekez izango duk astirik.
Baina orduan ere heure burua ongi atera nahi baduk,
egokiro gomenda hakio Andereari. Egia esaten diat:
Hark amaieran ere ez dik uzten bere jendea galtzen;
Orduan ere bere eskuan ditik dohain guztiak.

Mundu honek jende asko engainatzen du.
Betiko biziko direla uste dutenean, morroi gisara darabiltza
eta, gutxien uste dutenean, abandonatu egiten ditu.
Zoro-eran jokatu du hartaz fidatzen denak.

Neu ere askotan ibili naiz erotuta,
gauzez eta egunez, hotzak eta beroak,
loa galdu, atsekabe aski... baina ez ene arimagatik!
Orain guztia Jainkoagatik izan ledin nahi nuke!

Ni bezalako asko da munduan,
bizitza guztian handikeriatan dabilena beti.
Geure buruari errepara diezaiogun aukera dugun bitartean!
Andre onak babespean har gaitzake agian.
Hain da dohainez betea eta ama guztien gainekoa
ezen hurbiltzen zaiona ez baitu babesik gabe uzten.

Errurik gabe ez dago inor. Eta hau egia hutsa da.
Bekatuagatik kondenatzen du Jaungoikoak mundua.
Baina zugan, Andre handia, ez da bekaturik izan.
Bitartekari izan zakizkigu, beraz, barkamena luza diezagun!

Bekatariak salbatzeko sortu zintuen Jainkoak
eta justizia banatzeko epaile bilakatu du bere burua,
zu errukizko aterpe izan zintezan haientzat,
eta, berak justiziaz ezin salba litzakeenez,
zure errukiaren bidez zuzen litezen,
baldin eta egiazki baletoz zugana.

Orain arte ez da izan eta aurrerantzean ere ez da izango
hain handi eta likitsa den bekataririk,
zeinak, bere bidean gomendatuta etorri zaizunean,
zuri esker barkamenik izan ez duenik.
Ez da galdu eta ez da galduko zuk babestutakorik.
Zuri, beraz, gomendatzen gatzaizkizu bizitzan eta heriotzan.

Beste emakumeak, hainbat haurtxo txikiren ama bilakatzean,
ezin dira gero gehiago birjinak izan.
Zu, Anderea, birjina zara Jainkoaren ama izanik,
eta, harrezkero gainera, zeru eta lurraren erregina.

Jainkoa jaun duten gauza guztien jabea zara zu, Anderea.
Zilegi da, beraz, mundu guztiak ohora zaitzan,
Jesukristo bera ere hala jokatzen ari baita zurekin.
Mundu guztiak ere ez dauka zuk bezainbeste dignitate.

O, Anderea! Inor ezin da zu bezalakoa izan
eta, Jainkoaz aparte, zure gainean ere ez da besterik.
Zure azpitik dago Jainko ez den beste oro.
Jainkoaren ama zara mundu guztiaren gainetik.

Mundu guztiak ez du zuk bezainbeste egin hargatik,
baina haiengatik guztiengatik baino gehiago egin du hark ere zugatik.
Ezin egon daiteke bere amari obeditu gabe.
Emaguzu grazia, otoi, zuen artekoak izan gaitzen.

Zuk ondo gogotik hartuko baninduzu babespean,
argi asko dakit ezin kondena nintekeela.
Galduko zirenetako asko babestu duzu.
Hel zakizkit neuri ere, otoi, galtzen utzi gabe!

Inon ere ez da zuk ezin ken dezakezun gaitzik,

ez eta zure eskuan ez den ontasunik ere;
Zalantzarik gabe, denbora eta leku guztietan
Jaungoikoak emanda dituzu dohain guztiak zure eskuan.

Amak nahi duena lortuko du hala semeagandik;
eta seme onak edozer egin dezake amagatik.
Hark, zutaz maitemindurik, gure natura hartu du zugan,
eta zuk, gurekin anaiturik ezarri duzu Jaungoikoa.

Haren eta gu guztion ama duina zara zu
eta ama batek ezin du semeen artean gerlarik jasan.
Beraz, Semea gure gaiztakeriengatik haserre ikusten baduzu,
baketu gaitzazu berehala, guztion ama zara eta.

Orain egiten diren gaiztakeria handiengatik
lur guztia hondatuta izango zukeen Jainkoak jadanik,
baldin eta zu bitartekari izan ez bazina gugatik.
Zure otoitzengatik sostengatzen gaitu,
gu gaiztoak izan arren, zugan tatxarik izan ez dadin.
Amaiera onera eraman gaitzazu, salbatuen artekoak izan gaitezen!

Ama eztiá, nik zure kontra hutsik egiten badut,
gaztiga eta zuzen nazazu, otoi, berehala.
Ai ene! Nora egin nezake ihes zu, neure ama, utzita?
Neuretzat ez dut zu bezalako amarik ezagutzen.

EMAKUMEEN ALDE

EMAZTEN FABORE

Ez itzazu kritika emakumeak, arren!

Gizonek bakean utziko balituzte, ez lukete egingo faltarik.

Anitz gizon ari da andreez gaizki esaka,

arinki eta lizunki aipatzen baitituzte.

Isilik egotea ederrago litzateke.

Andreek gizonekin baizik ezin dezakete hutsik egin.

Andreei buruz zuhur gutxik hitz egin dezakete gaizki.

Haietaz ongi mintzatzea onestago litzateke.

Zer dela eta kritikatzin dira emakumeak?

Haiengandik sortuak gara handi eta txipiak oro.

Balentria erraza da andreak maiseatzea;

bat kritikatu nahi bada, guztiak berdin tratatzea.

Isil ledin nahi nuke halakoa den guztia.

Zoritzarrez eman dio hari emakumeak titia.

Andre-maiseatzaile orok pentsatu behar luke

nondik sortu ginen bera eta beste guztiok;

eta galdetu nahi nioke ama emakume duen ala ez.

Andre oro goratu behar luke amagatik.

Gizonaren probetxukoa da beti emakumea.
Haiengandik sortzen gara guztiok lehenik mundura;
sortuta ere, hil egingo ginатеке hark haziko ez bagintu;
Eta haziz gero ere, egunero behar dugu haren laguntza.

Osasuntsu dagoenean, haren eskua behar du janzteko eta jateko;
eri denean, andre gabe galdua dago gizon baldarra.
Eta hiltzen bada, nor joango da hura bezala laguntzera?
Ordu oroz behar ditugu; ez da zalantzarik hemen!

Emakumerik ez den lekuan ez dakusat plazerik.
Ez gizona, ez etxea ez daude behin ere garbi;
etxean den gauza oro gaizki atondurik da.
Paradisuan ere ez nuke egon nahi, emakumerik ez balitz.

Inoiz ez dut entzun emakumea lehena denik gizona oldartzen.
Gizona, ordea, betiere da lehena emakumea erasotzen.
Gaiztakeria beti ilkitzen da gizonengandik.
Zergatik, bada, egozten diote errua emakumeari?

Bertuteak handiago izan behar luke gizonetan.
Askoz ere gehiago dakusat nik emakumeen artean.
Mila gizon gaizto dago emakume gaizto bakoitzeko;
mila andre zintzo, berriz, gizon bakarra aurkitu orduko.

Bat bera ere ez litzateke onik, gizoni jaramon egingo baliете;
hauek ezin utzi dezakete oldartu gabe balio duena.
Baina anitz emakume eskapatzen zaie,
zeren andereen artean bertutea baita hoberena.

Nik ez dut entzuten emakumeak gizona bortxatzen duenik,
baina bera, zoraturik, andreari darraio.

Andreren bat hurbilduko balitz maitasunez harengana,
zein gizonek leporatuko lioke andreari errua?

Jainkoak emakumea maite du mundu guztiaren gainetik.

Zerutik jaitsi zen hartaz maitemindurik;
emakumeak ezarri du Jainkoa gurekin anaiturik.

Andre guztiak dira laudatzekoak harengatik.

Iruditzen zait gauza ezta dela emakumea,

dohain guzietan guztiz gauza emea.

Xarma handia du gauez eta egunez ere.

Zitalkeria handia da hartaz gaizki mintzatzea.

Munduan ez da hain gauza ederrik ez atseginik

nola emakumea gizonaren azpian biluzgorririk:

beso biak zabaldurik, errendaturik dagoenean,

gizon horrek hartaz nahi duena egin dezan.

Dardoaz gorputzaren erdian jotzen badu ere,

ez da mintzatuko aingeruak baino gaizkiago.

Eta behin dardoa leundurik eta zauria ere sendaturik,

bere graziaz ezartzen ditu elkarrekin baketurik.

Nor da hartaz oroitzen ez den gizon ergela

eta gero halakoa kritikatzeko duena?

Ez da gizon naturazkoa hala egiten duena.

Zergatik ez du onartzen hala egin zaion ongia?

EZKONDUEN KOPLAK

EZKONDUIEN KOPLAK

Jaungoikoa! Ken iezadazu besterena gogotik!
Bera gatibua da eta gatibu naiz neu ere hargatik.

Ni gatibu naukana besteren gatibua da.
Hala, ni biren gatibu izatea ekarri du ene patuak.
Bizi banaiz, gogo onez izango naiz batarena,
baina aurrerantzean behartuta baizik ez bestearena.

Besterena beretzat maitale har dezanak
plazera baino gehiagotan izango du oinaze.
Elkartzeak bakanka eta beldurrez izango dira,
gutxien uste dutenean sor daiteke-eta gaitza bertan.

Erokeria handia da besterena maitatzea.
Anitz malenkonia izango du plazer bat izan orduko.
Begiez ikus, ezin mintza; han dakusat nekea.
Berearekin datzanean, enetzat haizea.

Arriskuarekin baizik ezin noake harengana,
eta agian hark ez du orduan aukerarik izango.
Eta baldin badu ere, beldur izango da; bertan doa atzera.
Nik nahien dudanean, beste baten besoetan datza.

Alor hartan hazia ereitea egokitzen bazait,
eta eneak badira ere lastoa eta bihia,
ez bat hori izango ahal dut, ezta ere bestea.

Lan eginaz esker gaizto jasoko dut, eta galduko irabazia;
besterentzat gelditzen da ene eskubidea.
Agian gero alabarekin ezkonduko da semea.

Maitasuna inork ere ez du partekatu nahi.
Nik ez dakit besteak, baina ni bekatutan ari naiz.
Hain noa penaturik berearekin ikusteaz!
Haiek jostetan, ni neketan; orduan bai amorrua!

Jeloskortasunak ezin ditzaket nik sekula kritikatu.
Maite nauena ez nuke nahi inork uki liezadan.
Gertatu zait besterenarekin maitekiro izatea leku batean,
eta halere amorratzear nintzen berearekiko jelosturik.

Maitasuna ezin daiteke arrazionalki goberna.
Anitzetan maitatzen du gutxien behar duena.
Ardoak baino gaizkiago mozkor dezake pertsona.
Hark atzematen duena azkar estekatzen du eta berandu askatzen.

Itsua da maitasuna eta ez du zuzentasuna ezagutzen.
Maite duenaz gainera, ez du uste besterik dagoenik.
Suak baino gaizkiago erre dezake gizona.
Eta pizten duena itsasoak ere ezin dezake itzali.

ISILPEKO MAITALEA

AMOROS SEKRETUKI DENA

Andre eder jentil batek bihotza ostu dit.
Hartaz oroitzen naizenean, deus ere ezin dut irentsi.
Nik hura bezala nahi nuke hark maita nintzan.
Ezin ausartuz nago, muturtu dakidan beldurrez.

A! Bertute bereziko ispilu bat izan ahalko banu,
han barna neure gogoa sekretuki erakusteko modukoa
eta nik han bertan ikus nezan haren niganako gogoa ere,
behin ere hutsik ez egiteko harekiko!

Ni larriki atsekabetzeko sortu zen hain ederra!
Gauetz eta egunez ere atsekabetzen nau larriki.
Harekin batzen banaiz, harri bihurtzen zait bihotza.
Neure penak esatera ere ez naiz ausartzen.

Ene gogoa ezagutuko balu, maita bide ninduke.
Ni errege baldin banintz, erregina litzateke.
Hark hala nahi balu, elkarrekin ginateke;
haren haurrak eta eneak aurridero oso lirateke.

Baldin eta nik neure bihotza irekiko banio
eta baldin gero erantzun bortitza emango balit,
geziak baino lehenago erdibi lezake ene bihotza.
Duda gabe eror ninteke han bertan hilotza.

Artizarrak abantaila ateratzen die besteei.

Halakoa da andereen artean ni atsekabetzen nauena.

Hain da eder eta jentila, ezen hartaz ero bainarama.

Zori onean sortu da haren besoetan datzana!

Nola ene gogoa zuzen jarria baita harengana,

Jaungoikoak dakarrela harena ere niregana,

ene nahigabea bihotzean barrena sar dakion

eta gogo onez egin dezan desiratzen dudana.

MAITALEEN ALDENTZEA

AMORROSEN PARTITZIA

Alde egin ahalko banio, aukera hoberena litzateke;
alabaina, ez dut nik hainbeste maite dudan bestelakorik.

Maiteño bat maitatu dut guztiz sobera;
harekin josi dira ene arima eta bihotza.
Begietan finkatua dut haren irudi ederra;
bihotza hausten zait hartaz oroitzen naizenean.

Nik hain dut harenganako maitasun handia,
ezen harekin egoteaz ez baininteki neka.
Harengandik alde egitea ihargarria da enetzat;
berriz ikus dezakedan arte, etengabe naiz malenkoniataua.

–A, ene maitea! Nola nauzun nahigabetzen
eta zurekin ezin batuz bihotzean erretzen!
Ni larri atsekabetzeko sortu zinen, ziur!
Oinaze guztiak onak lirateke nitaz oroituko bazina.

Gau bat nahi nuke zurekin mintzatzeko,
hilabete osoz luzatuko litzatekeen gaua,
astirik franko izan nezan arrangurak kontatzeko
eta zurekin inolako beldurrik gabe egoteko.

Orain egiaztatzen dut dakitenen esana:
“ez dezala inork utzi eskuetan duena!”.
Ai, itzularazi ahalko banu iragan den denbora!
Seguru da orain ez nukeela dudan goganbeharra.

Denbora hartan nik zugatik sufritzen nuen;
orain, aldiz, zure erruz aldatu naiz neu ere.
–Ez zaitetz malenkonia; izango duzu maitalerik;
baina zentzatzeko ordua iritsi zaizu zeuri ere.

Nahigabeen partaide nauzu neu ere, badakizu,
baina zure aldaketan ez dut errurik bat ere.
–Nire atsekaberako hartu zintudan maitale;
izango dut nik, bai, aurrerantzean zugatik oinaze.

MAITALE JELOSKORRA

AMOROS JELOSIA

–Ene maitea, gaitz da beti oinazez egotea.
Behar al dut nik beti zugatik nahigabetzea?

Maiteño bat izan dut miragarriki jentila.
Harekin nintzenean ez nuen nik besteren beharrik.
Nik ezingo nuke inoiz izan hura baino maiteagorik.
Haren minez, orain nago ezin hilez bizirik.

Norbaitek aldatu dit ene maiteñoa.
Nik ez dakit zer den, baina jarrera berria du.
Aspaldidanik ez dit ohi zuen bezala hitz egin nahi.
Galdetu behar dut zerk hantu duen anderea.

Sekretuki mintzatu behar dut harekin.
Eta une hartan jadanik etsaia ez bada, baketu.
Baina ez badit ondo erantzuten, enbido jo behar dut,
behar bestekoa iruditzen zait-eta neure burua harentzako.

–Nor izan da, maitea, gu bion artean?
Aspaldi luzean zabilta aldaturik.
Dakidanez, nik ez dut izan bizi guztian zurekiko hutsik.
Mintza gaitezen biok inoiz sekretuki nonbaiten.

Inon ere ez dakusat nerau bezain erorik.
Nahigabetzen nauen hark ez du nitaz axolarik.
Zuhurra banintz, neu ere hura gabe egongo nintzateke;

alabaina, ezin ken dezaket behin ere gogotik.

Jende onak! Bihotza dut betiere negarrez,
neure maite sotila galdu ote dudan beldurrez.
Gauetz ezin dezaket lorik egin hartaz arranguratuz;
susmo handia dut adarrez bete ote nauen.

Jaungoikoa! Ken iezadazu nire maitea gogotik
eta haren irudia ene begietatik!
Hark ez dauka nirekiko leialtasun zintzorik.
Ni ere hura gabe elikatuko naiz orain.
Zelaia lohitu da-eta, ez dut haren beharrik.
Nahi badut, izango dut orain ere berririk.

MUSU-ESKEA

POTAREN GALDATZIA

–Andrea! Jainkoak lagun zaitzala! Orai berdinak gara.
Ni errege baldin banintz, zu erregina zinateke.
Musu bat emadazu, otoi! Ez zaitez lotsatu!
Nik zugatik hartutako nahigabeek ondo merezia dute-eta.

–Ken hortik! Aparta hadi! Nor uste duk naizela?
Ez ezak pentsa nik horrelakorik ikusi dudanik!
Niri ez esan horrelako hitz gaiztorik!
Besteri esaizkiok; ni ez nauk uste duana.

–Andre gaiztoa bazina, ez nizuke kasurik egingo.
Zaren zarena zarelako hartzen dut zutaz atsekabe nik.
Ene ustez, ez dut gauza desonestorik esan.
Niri musu bat emateagatik, ez zenuke desohorerik.

–Hire musuak, bazakiat, beste gauza bat nahi dik.
–Anderea, aztia zara; nik esan gabe asmatu duzu!
–Bada, holakoetatik isilik utzi nazak ni!
–Horren zaila zarenez gero, besterik egingo dut.

Ez zaitut, bada, utziko bizi naizen bitartean;
baina nik nahi dudana egingo duzu hemen.
–Uste diat eskuarki ez haizela nitaz burlatzen.
(Gizon honek desohorez beteko ote nau orain hemen?)
Aaaaaaa! Zer egin dezaket nik? –Zaude isilik une batez!

Etai lelori bai lelo! Musu franko, bestea bego!
Andrea, hurrengoan emeago mintza zaitez!

MAITASUN-ESKARIA

AMOREZ ERREKERITZIA

–Zori bedeinkatua! Hau bai enkontru hona!
Orain begien aurrean dut desiratzen nuena.

Ene maite maiteena! Egidazu justizia!
Ekardazu kendu didazuna, edo emadazu bestela ordaina.

–Nik dakidala, ez daukat zurea den gauzarik.
Lotsaturik jarri nauzu, eta ez dakit zergatik.

–Ez izan beldurrik; ez duzu arriskurik.
Gure auzian ez da izango zu zeu baino beste epailerik.

–Ez dut arriskurik izateko gaizkirik egin,
ezta auzirik izatekorik ere.

–Bada, neure maitea, nik egia diotsut:
ene burua ostu duzu-eta, dagokidana balia bekit.

–Ni ez naiz ohoina, lapurretan ari naizena.
Ez nadila izan orain, otoi, errurik gabe difamatua.

–Enetako ohoina zara, ohoin handia.
Nik premiazkoen nuena daramazu zurekin.

–Ni ez nauzu jakintsu. Argi hitz egin ezazu,
ondo adi zaitzaten nahi baldin baduzu.

–Gizonak duen maiteena eta baita ere hoberena
bihotzeko lasaitasuna da eta bere lo ona.

Orain ezin lorik egin dezaket, ez bihotzean dut lasaitasunik.
Haiek biak galdu ditut, maitea, nik zugatik.

Ondo pentsatzen baduzu, larriki ostu nauzu;
zor handian zaude eta, otoi, zuzen joka ezazu.

–Galdu egin badituzu, zergatik leporatzen didazu niri?
Inondik ez dira etorri, nik dakidala, niregana.

–Orain egun zenbait, zure adatsa orrazten zeundela,
hain maitemindu nintzen zutaz, ezen nahigabeturik bainauzu geroztik.

–Erraza da horrela mintzatzea; eta badakizu eroki pozten.
Aipatzen dituzun nahigabe horiek handiak bide dituzu.

–Hainbat ere handiak dira, ezen ezin esan bainitzake.
Egiatan bazeneki, urrikal nenkizuke.

–Oinazeak handiak badituzu, sendagile aski duzu.
Arin sendotuko zara; larru hori osorik duzu.

–Larruan zauritua banintz, bada sendagilerik herrian.
Ene mina ez lezake senda zuk baizik bizian.

Zure irudi ederrak eta ibilkera jentilak
dardo zorrotzak baino larriago zauritu naute.

Bihotzean zauritua naiz eta gatibatua nauzu.
Maitaletzat har nazazu; nik dudana zurea da.

Ametsetan eta esnaturik, oinazez nago ni zugatik.
Hitz on bat esadazu, otoi, bat-batean hil ez nadin.

–Zer nahi duzu esan dezadan kontu horren gainean?
Ni bezalakorik ere aski da herrian.

–Hain maite zaitut nik beste guztien gainetik,
ezen mundu guztia utzi nezake zugatik.

Egia esaten badut, nahigabe handia dut nik.
Sekretuki mintza gaitezen biok, otoi, maitea.

MAITEMINDUEN LISKARRA

AMROSEN DISPUTA

–Uztazu hurbiltzen, maite kuttuna!
Orain aldenduz gero, damutu egingo ginateke.

–Maitea, otoi, alden gaitezen,
jendea susmatzen hasi da-eta.
Ohorea galdu gabe geldi gaitezen,
ez gaitezen jendearen aurrean irrigarri gerta.

–Ai, maitea! Galdua naiz!
Inoiz ez ninteke zurekin gogait!
Pena handia da bizirik egonik aldentzea.
Hain azkar utzi nahi nauzu?

–Neuk ere maite zaitut, benetan.
Ez zaitut uzten maite ez zaitudalako.
Baina Jainkoaren beldur nauzu
eta bekatu gehiegi egin dugu dagoeneko.

–Oraindik gazteak gara, maitea;
denbora dugu Jainkoaz oroitzeko.
Bitartean elkarrekin egon behar dugu.
Tamalgarria da orain aldentzea.

–Bekatu honetan hilko bagina,
kondenatu egingo litzateke ene arima.
Ez zaitetz jada nirekin engaina;
eta ez jarri eragozpenik niri!

–Honako konbentzimendu hau dut gogoan:
nik zugarako daukadan maitasuna
Jainkoari ere ederra zaiola
eta ezin gaitzakeela horregatik gaitzetsi.

–Niri ez etorri horrelako zurikeriekin,
erdi erotuta naukazu-eta!
Erregutzen dizut: niri uztazu;
ez duzu ondo ikusten ene gogoa.

–Nola esaten didazu horrelakorik?
Beti zaude burugogorkeria bortitz horiekin!
Lehendabizi bihotza eraman didazu;
gero neure gorputza gatibatu duzu.

–Niri ez leporatu horrelako erantzukizunik!
Geldi egon zintezten nahi nuke.
Gure etxean gureaz ohartzen badira,
galduak gara biok jagoitik.

–Beti al dago, bada, jendea guri begira?
Ni sekretuki nator zugarara;
zeuk jakingo duzu noiz duzun aukera,
baina ez dakizula neketsu gerta nigana etortzea.

–Erabili ohi den pitxerra hautsi egiten da;
zuk ni desohore handiz beteko nauzu.
Erregutzen dizut: niri uztazu,
ezingo duzu-eta nitaz atseginik izan.

–Kuttun maitea, egia diotsut:
zuga datza ene bizitza;
nahiago dut zu ikustea,
herri guzia neuretzat izatea baino.

–Niri ez etorri horrelako losintxeekin!
Isil zintezen nahi nuke.
Jainkoaz oroitzeko ordua litzateke.
Besterik har ezazu; niri uztazu.

–Jainkoaren beldur jarri al zara?
Hala bota nahi al nauzu?
Nik hemendik alde egin baino lehen
ene nahia egin behar duzu.

–Orain hemen bortxatu nahi al nauzu?
Oraingoan utzi nazazu, otoi!
Beste batean etorriko natzaizu;
nahi duzun hori orduan egin ahal izango duzu.

–Antzinatek esana da
eskuan duena uzten duenak,
nahi duenean ez duela eskuratzerik izango.
Utikan hitzak, bada, eta ekin diezaiozun!

–Nahi zenuena egin duzu orain.
Desohorea ekarri didazu.
Neure zoria madarikatzen dut,
gaur zugana etorri naizelako.

–Otoi, maitea, ez zaitez artega!

Itzuli hona aurpegi hori!

Adiskide bat izango duzu nigan

eta senar gaizto batek beste balio dezaket.

ZOAZ HEMENDIK ORDU GAIZTOAN!

ORDU GAITZAREKI HORRAT ZAKITZAT!

Berriro konkistan hasi behar al dugu orain?

Gonbit handiak, akaso, ezteiak iragan ondoren?

Ez zara hain andere larria.

Azkar har nezake merezia duzuna.

MAITALE BIHOZGABEAREN ERDEINUA

AMORE GOGORRAREN DESPITA

Andre eder jentil batez liluratu zaizkit begiak.
Herri orotan ez du ezertan parerik.
Otoitz egin nion egia esan ziezadan:
ea biderik litzatekeenez haren gogoko izan nintzan.

Luzamendurik gabe eman dit erantzuna:
–Adeitasunez hain ziur maite zaitut nik.
Besterik ez duzu izango nigandik; abisatzen dizut nik.
Gazte zoroa naizen arren, ez nauzu horregatik zurea izango.

–Gaztea bazara ere, adimendu ona duzu.
Senti ezazu, otoi, nik zugatik dudan atsekabea;
bizirik nahi banauzu, zuretzat har nazazu.
Zama handia izango duzu, zugatik hiltzen banaiz.

–Ohorea galtzen, zail da plazer ematen.
Ez zaizu zilegi niri horrela mintzatzea.
Gaiztakeria egitea badakizu desohorea dela.
Ni eroa, zu jakintsu, ezin zaitut aintzat har.

–Nahi baduzu, zuhurra izango naiz ni.
Gure arteko maitasuna inork ez du jakingo.
Emadazu aukera, otoi, sekretuki mintzatzeko.
Enekin mintzatzetik ezin etor dakizuke gaitzik.

–Gaizki egiten denean, berehala jakiten du jendeak.
Nireek desohorea jasoko lukete nik gaizki jokatzegatik.
Gu biok ezin ginateke ongi izan elkarrekin.
Zaude isilik! Zoaz hemendik, hobe izango da eta!

–Bihotza erdibitu didazu hitz horiekin!
Hain da handia nik zugatik dudan nahigabea,
ezen zeurekin ez banaiz orain bertan kontsolatzen,
ene arima kanpora aterako baita erremediorik gabe.

–Neke handikoa da, bai, arimaren kanporatzea.
Baina orain dituzun penengatik bada, jasango du zureak.
Lasai utz nazazu horrelako hantusteetatik.
Probetxurik ez duzu aterako; sinets nazazu.

–Nola biziko nintzateke, zurekin gaizki banago?
Zurekin dira ene bihotza eta arima.
Bihotz eta arima gabe inor ezingo litzateke bizi.
Ondo egongo ginateke zu eta biok elkarrekin.

–Jauna, egoskorkeria handikoa haiz hi, baiki.
Isil hendin nahi nitek, ala ene fedea!
Hitz gutxitan adi ezak egia, nahi baduk:
hiretzat ez zaukaat nik, ziur egon, neure burua.

–Hori horrela izango ote zen beldur nintzen.
Andreak ez badaki maitaleari begirunerik erakusten,
galdua naiz ni lehenik eta maitale oro gero.
Baina maite bazaitut, ez dakizula hori neketsua izan!

Izan ote da egundaino ni bezain zorigaiztokorik?
Ene maiteak ez nau maite; nik hura ezin gaitzetsi.
Uste dut ezin lor dezakedanari narraiola.
Zergatik maite dut, bada, maite ez nauena?

Jaungoikoa! Alda ezak, otoi, ene bihotza,
izan ez dezadan, hark bezala, ene maiteaz axola.
Hobe da, halabeharrez bada ere, ongi egitea gaizki egitea baino.
Neuk ere utziko dut maite ez nauena.

Andre-gabeziagatik hilko naiz ni, bada, lehena!
Guztiek etsi behar dut, hori izango baita hoberena.
Haiekin ezin aberats naiteke, baina bai gal dezaket neure arima.
Eta bategatik, azkar arnega nezake gainerako guztiez ere.

MOSEN BERNAT ETXEPAREREN KANTUA

MOSEN BERNAT ETXAPARERE KANTUIA

Mosen Bernat, gauza nola joango zen jakin bahu,
Biarnora joan gabe egon hintzatekeen.

Iritsi behar duen kontuan ez da eskapatzerik.
Nik ongi egiteaz beste errurik ez nuela,
bidegabekeriak heldu nau merezi ez nuen lekutik,
erregeren aurrean salatu bainaute, errugabe garbia izanik.

Jaun erregek berehala joan nenkion abisatu zidan.
Gaitzez zegoela entzun nuen, baina ez nuen nik errurik.
Etsaien maltzurkeriari lekurik ez uzteko,
joan nintzen; errugabea izanik, ez nuen ihesik egin.

Baldin eta joan izan ez banintz, errudun nintzatekeen
eta beti sinetsi zatekeen ene kontrako faltsukeria.
Justizian entzuna izan banintz, azkar atera nintzatekeen;
haren faltaz, baina, hasi naiz etorri izanaz damutzen.

Zuhurtzia handia da besteren gaitzaz zentzatztea.
Etsairik duen guztiak niregan eskarmenta beza.
Ziurta beza bere burua, abantailan dabilen artean.
Hobe da betiere gaitza aparte egozte.

Ni, gaixoa, ni neu etorri natzaio etsaiari eskura.
Nik ondo egindakoak ere orain kaltegarri dira guztiak.
Haren mendean ez banengo, justiziak babestuko nindukeen.
Mirakulurik egingo banu ere, ene errua litzateke orain.

Ezin inor babestu testimonio faltsutik.
Hala kondenatu zuten Jainkoa ere hiltzera.
Bekatariak gara-eta, ez gaitezen harritu
baldin eta bidegabeki akusatuak bagara.
Pazientzia izan dezagun eta Jainkoak lagun gaitzala!
Berak mendeka dezake gaiztakeriatan dabilena.

Jaungoikoa! Zu zara egiazko epailea.
Zure gortean berdinak dira handia eta txipia.
Norbaitek maltzurkeria handia egin dit.
Barka iezaiezu hura, otoi, eta niri egia balia.

Jaungoikoa! Libra nazazu etsaiaren agindupetik!
Eta ene etsaiak ikusten baditut ene gaitzaz pozturik,
zure eskuaz zigorturik ikus ditzadala,
nitaz egin ez dezaten pentsatu duten iseka.

Jaungoikoa! Bekatu egin dut zure kontra.
Ez nazazu, otoi, haiengatik hemen zigortu.
Nik dakidala, erregeri ez diot huts egin,
orain hemen gatibu egon behar izateko.
Zuganako huts egindakoez zigortu nahi banauzu
eta errege eta beste guztiak ene kontra armatu,
gogo onez nahi dut zure ekinbidea laudatu
eta etsaiak ematen didan sufrikarioa pazientziaz hartu,
ene arima, hemen sufri dezadan arren, salba dadin.
Zeuk ikusazu haiek zer merezi duten.

Atsekabe guztiak etortzen dira Jainkoaren nahitik
eta guztia permititzen du berak hoberena lortzeagatik.
Agian honela ez banengo, hila nintzatekeen jadanik.
Ene etsaiak, suntsituko ninduelakoan, ene alde jokatu dik.

Haietako batzuk hil dira; ni bizirik nago oraindik.
Ongi egin uste baitut ohorezki aterata,
gaitza etorri bezala, onura ere berehala etorriko da.
Gaitza jasan ez duenak ez daki ona zer den.

Ongi eginez eta gaitza sufrituz salbatu behar dugu.
Oinazea eta miseria nik ez nituen dastatuak.
Orain badakit: Jaungoikoak ez nau kondenatu nahi,
ni hemen atsekabetzeaz oroitu baita.
Urre onak behar du suan ondo garbitu.

Beretzat nahi izan ez banindu, ez nindukeen zigortuko.
Aitak bere haur maitea zigortu ohi du;
bihi ona gorde aurretik xahutu behar da.
Jaungoikoak nitaz ere hala egin du agian.

Mosen Bernat: pentsa ezak kartzela hori latza bada,
nonbait ere infernua are latzagoa dela.
Hemen hik badukek, baina haiek ez, nork kontsola.
Oinazeak hemen azkar dik amaiera; haienak ez, sekula.

Hemen ez duk batere minik, salbu eta ateratzeko nahia;
han direnek beti dute suan oinaze handia,
oinaze handi, izugarri, inolako etenik gabea.
Hartaz oroit hadi eta pazientzia izango duk.

Besteren aholkulari hintzen, orain heure buruarena izan hadi.

Oinaze honetaz oroitzean, hangoaz hausnar ezak.

Hemengoaz bestekoa saihestu ahalko bahu,

ondo enplegatua izango huke heure denbora hemen.

Ondo aholka hezake heuk jende guztia, hor balego.

Bada, orain aldiz heure burua aholka ezak,

kriseiluari gertatutakoa hiri gerta ez dakian:

besteei argi egitean erretzen dik bere burua.

Hiri bidegabe handia egin badiate,

Jainkoari gomenda iezaioke heure arazo guzia.

Hark guztiei emango zioke merezi dutena:

gaizkileei oinaze handia, pazientzia dutenei loria.

Ez dezaala gorrotoagatik kondena heure burua,

gaiztoari gaizkia iritsi dakion desiratuz.

Jainkoari afruntu handia egiten diok:

hura borrero egiten duk eta heure burua epaile.

Hik heure etsaia zertan epaitzen duan,

hartan kondenatzen duk heure burua;

eta hartan ez dakiake aitzakiarik balia.

Erakustak non den errugaberik!

Jaungoikoa! Arrangura handia dut orain.

Hiri honetan erailik zentzen da jendea.

Espetxeraturik hil ez nadin ni, gizon errugabea,

emadazu zuk, otoi, bizirik ateratzeko bidea,

etsaiak ez diezadan atzetik irri egin:

–“Erruduna zuan eta han galdu dik bizia”.

Libertatea gauzarik hoberena den bezala,
atxiloturik egotea pena gogorrena da.

Ez dadila, otoi, ni bezala inor tronpa,
ezta hitz guztietan fida ere gizona.

Jaungoikoa! Zaindu zuk niri ere dagokidan eskubidea.

Amen.

KONTRAPAS

KONTRAPAS

Euskara,
atera hadi kanpora!

Garaziko herria
benedikatua izan dadila!
Euskarari eman dio
behar zuen moldea.

Euskara,
atera hadi plazara!

Gainerako jendeek uste zuten
ezin idatzi zitekeela.
Orain egiaztatu dute
tronpatuak zirela.

Euskara,
atera hadi mundura!

Mintzairetan ohi hintzen
estimatu gutxikoa;
orain, aldiz, hik behar duk
ohorea guztien artean.

Euskara,
habil mundu guzira!

Beste guztiak izan dira
bere goien gradura igoak.
Orain hura igoko da
beste guztien gainera.

Euskara!

Guztiek estimatzen dituzte euskaldunak,
euskaraz ez jakin arren.
Guztiek jakingo dute
orain euskara zer den.

Euskara!

Oraindaino egon bahaiz
inprimatu gabe,
aurrerantzean ibiliko haiz
mundu guztian barrena.

Euskara!

Inongo hizkuntzarik,
ez frantsesa ez besterik,
ez da aurkitzen orain
euskararen parean.

Euskara,
atera hadi dantzara!

SAUTRELA

SAUTRELA

Kanpoan da Euskara, eta goazen guztiok dantzara!

O, Euskara! Lauda ezak Garaziko herria,
handik jaso baituk behar huen moldea.
Lehen azkena hintzen hizkuntzen artean;
orain, aldiz, guztietako lehena izango haiz.

Euskaldunak leku guztietan estimatuak ziren,
baina erdaldunek haien hizkuntzaz iseka egiten zuten,
euskara ez baitzen inon idatzita aurkitzen.
Orain jakingo dute zein gauza ona zen!

Burua altxa beza Euskaldun den gizon orok,
lore ederra izango baita haien hizkuntza.
Printze eta jaun handi guztiek hartaz galdetzen dute orain,
ikasteko desira baitute, ahal balute, idatzizkoa baliatuz.

Desio hura Garaziko naturak bete du,
hark eta orain Bordelen dagoen haren adiskideak:
huraxe da euskararen lehen inprimatzailea;
aurrerakoan euskaldun guztiok gara haren zordun.

Etai lelori bai lelo, leloa zarai leloa!
Kanpoan da Euskara, eta goazen guztiok dantzara!

HASIERA XUME HONI ZORI HOBEAK JARRAI DIEZAIOLA!

PARLAMENTUKO ERREGISTROEN LABURTZAPENA

EXTRACT DES REGESTES DE PARLEMENT

Bordeleko maisu inprimatzailea den François Morpain-ek apaltasunez egiten duen eskabidea:

Linguae Vasconum Primitiae izenburuko tratatua inprimatzeko xahupen asko egin behar izan dituenek, Gorteari eskatzen dio justizia egin dezala eta laket izan dakiola lurralde honetako liburu-inprimatzaile guztiei aipatu tratatua inprimatzen edo inprimarazten galaraztea eta merkataria guztiei hiru urtez bestelako ediziorik saltzea debekatzea, mila libera tourstarreko isun-mehatxuarekin.

Eskabide hau ikusirik, Gorteari aipatu Morpainek eskatutako debekuak onesten ditu, mila libera tourstarreko isun-mehatxuarekin.

Bordeleko Parlamentuan luzatua, mila bostehun eta berrogeita bosteko apirilaren azken egunean.

Alderaketa burutua da

De Pontac

AURKIBIDEA

LINGVAE VASCONUM PRIMITIAE

DOKTRINA KRISTIANA

AMORROSEN GAZTIGUIA

EMAZTEN FABORE

EZKONDUIEN KOPLAK

AMOROS SEKRETUKI DENA

AMORROSEN PARTITZIA

AMOROS JELOSIA

POTAREN GALDATZIA

AMOREZ ERREKERITZIA

AMORROSEN DISPUTA

ORDU GAITZAREKI HORRAT ZAKITZAT!

AMORE GOGORRAREN DESPITA

MOSEN BERNAT ETXAPARERE KANTUIA

KONTRAPAS

SAUTRELA

EXTRACT DES REGESTES DE PARLEMENT

EUSKALDUNON HIZKUNTZAREN HASIKINAK

DOKTRINA KRISTAUA

MAITALEENTZAKO AHOLKUA

EMAKUMEEN ALDE

EZKONDUIEN KOPLAK

ISILPEKO MAITALEA

MAITALEEN ALDENTZEA

MAITALE JELOSKORRA

MUSU-ESKEA

MAITASUN-ESKARIA

MAITEMINDUEN LISKARRA

ZOAZ HEMENDIK ORDU GAIZTOAN!

MAITALE BIHOZGABEAREN ERDEINUA

MOSEN BERNAT ETXEPAREREN KANTUA

KONTRAPAS

SAUTRELA

PARLAMENTUKO ERREGISTROEN LABURTZAPENA